

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2026 / Iraila / 371. zenbakia

www.oñati.eus  



**Atzeko Kaleko jaiek
mendeurrena beteko dute aurten**

"Mundu mailako monumentu bat daukagu Olaiturrin aparkatuta, eta ez dugu konturatu nahi. Bizia eman behar diogu Sancti Spiritus unibertsitateari"

Jon Sagarzazuk urteak daramatza Oñatiko unibertsitatearen inguruan ikertzen

'Sancti Spiritusi begirada berri bat' izenburupean, hitzaldi zinez interesgarria eman zuen Jon Sagarzazuk ekainaren 24an kultur etxean. Unibertsitateko ikonografiaren inguruan egindako aurkikuntzetako batzuk azaldu zituen bertan, baina, batez ere, herritarrei dei egiteko baliatu nahi izan zuen ekitaldia: "Mundu mailako hezkuntzako monumentu bat daukagu Oñatin. Fatxadan eskultura gehien daukan eraikina da, seguruenik, eta oñatiarrok ahaztuta daukagu". "Ez daukazue barkamenik" entzun behar izan omen du hainbat adituren ahotik. Horregatik, Sagarzazuk animatu egin nahi ditu herritarrak, eraikina kanpoaldetik eraberritzera mugatu barik, unibertsitateari bizitza ematera. "Oñatiarrok egiten ez badugu, ez du inork egingo". Dagoeneko hainbat herritarrek adierazi diote laguntzeko prestutasuna



**Entzuleak zirikatzeak asmoz-
edo zera esan zenuen ekaina-
ren 24ko hitzaldian: Hezkuntza
arloko mundu mailako monu-
mentu bat daukagu Olaiturrin
aparkatuta. Hala al da?**

Halaxe pentsatzen dut, bai. Azken hamar urteotan turismo pedagogikoa egiten ibili naiz batez ere kultura humanistarekin lotura duten hezkuntza zentro nagusiak ikusten –Oxford eta Canmbridge (Erresuma Batua), Lovaina (Belgika), Sorbona (Frantzia), Bolonia (Italia), Coimbra (Portugal), Alcalá de Henares, Salamanca... (Espainia)–, eta Oñatiko unibertsitatearen berri azaldu izan dudanean, askotan entzun behar izan dut: "Baina hori existitzen al da?". Salamancako ondare-erretoreordeak zera esan zidan: "lote-ria patrimoniala suertatu zaizue eta ez duzue konturatu nahi. Ez daukazue barkamenik!".

Eta egia da. Goian aipatutako unibertsitate horiek guztiak aztertzen badituzu, Sancti Spiritus eraikina izango da, ia seguru, fatxadan eskultura gehien dituen eraikin unibertsitarioa munduan. Agian Salamanca edo Alcalakoa

historikoagoa edo aberatsagoa izango da, baina bolumen aldetik Oñatik aberastasun ikaragarria dauka, eta oraindik ez dakigu iruditeria horren guztiaren atzean dagoen mezua, esateko asko baitu. Oxforden eta Cambridge, adibidez, Oñatikoa halako hogeikolegio edo gehiago dago unibertsitate bakoitzean, baina XVI. gizaldiko erreformarekin eta XVII.eko gerra zibilean eskultura gehienak suntsituta geratu ziren eta jatorrizko ondaretik %10 edo gutxiago geratzen da. Frantzian ere beste hainbeste gertatu zen iraultzarekin.

Oñatiar batek baino gehiagok pentsatuko du, beharbada, "oraintxe ari dira, baina, unibertsitatea zaharberritzen?". Zure kezka, baina, haratago doa, ezta? Unibertsitateari bizitza eman behar diogula diozu. Zer esan nahi duzu?

Eraikina zaharberritzea ondo dago, eta dena ondo bidean, udazkenerako amaitua egongo dira lanak. Baina ikusten dudana arriskua da, berritze lanak amaitu eta horretan geratzea. Ez jabetzea eraikin horrek daukan garrantziaz eta balioaz.

Entzun dut turismo bulegoa bertan kokatuko dutela. Lege-soziologia erakundea ere bertara itzuliko da eta, nonbait, ikas-teko gela batzuk ere egokituko omen dituzte bertan. Hori guztiori ondo dago, eraikina babes-teko modurik egokiena erabilera ematea baita. Baina nik uste dut haratago joan behar dugula eta, monumentuaren eraberritze hau baliatu genezakeela herrian daukagun harribitxi hau berriz ere balioan jarri eta kulturaren mundu mailako mapan kokatzeko. Alcalan eta Salamancan, esaterako, bada, unibertsitateen turismo eredu bat, eta, hona ere ekar liteke. Kontuan hartu behar da, gainera, San Migel parroikia bera ere unibertsitatearen parte zela, azterketak, graduazioak edota debate publikoak parrokian bertan egiten baitziren; beraz, unibertsitateko bisi-taren barruan parroikia sartzea



ere ondo legoke. Hezkuntzako ikasleei zuzendutako bisitak ere antolatu daitezke, artea ez ezik, unibertsitatearen funtzioa eta baloreak azaltzeko, edota balio demokratikoak jorratzeko. Baina, horretarako, aurrez guk geuk ezagutu eta baloratu behar dugu daukaguna, ondoren ezagutzera emateko.



Sancti Spiritus eraikina izango da, ia seguru, fatxadan eskultura gehien dituen eraikin unibertsitarioa munduan

Eraikina zaharberritzea ondo dago, baina ikusten dudana arriskua da, berritze lanak amaitu eta horretan geratzea; ez jabetzea eraikin horrek daukan garrantziaz eta balioaz

Batenbatek galdetuko du, beharbada, "baina guk, herritar xumeok, zertan edo nola lagun dezakegu?".

Adibide historiko bat aipatu nuen hitzaldian. Alcalako unibertsitatea Madrilgo gobernuak itxi zuenean, 1836an, bertako eraikin gehienak enkantean saldu zituzten. Herritarrek kezkatzen hasi ziren, eta eraikin nagusiko fatxada saltzera zihoazenean, herritarrek ezetz esan zuten, he-

rriaren ikurra zela eta hori gabe ez zirela ezer. Hala, herritarren artean diru bilketa egin zuten, *La Sociedad de Condueños* izeneko elkarte bat sortu eta erosi egin zuten eraikina. Gerora, ondorengoek unibertsitatea birsortu zuten 1977an.

Orduan, nik zera diot, oñatiarrok unibertsitate bat sortu genuen XVI. mendean, hainbat herritarrek jardun zuten bertan lanean, eta ez al du merezi hori berreskuratzeak? Asmoa ez da unibertsitatea birsortzea, ez dago horretarako beharrik, baina, gutxienez, antolatu eta pentsatzea: zer egin liteke hemen? Eta modu askotara lagun daiteke, bakoitzak dakienetik, arte kontuetan aditua izan beharrik gabe.

Egin litekeenaren adibide batzuk ere eman zenituen.

Bai, adibidez, XVI. mendeko ikasleen jantziak birsortu daitezke. Unibertsitateko konstituzioetan dago jasota zein material erabiltzen zen, ze kolore, ze neurri, nola jantzi behar zen... Bada, zorionez, herriko lau jostun prest agertu dira, jada, lau maniki prestatzeko.

Garai hartako musika kolegiala ere berreskuratu liteke, eta zorionez, Aitor Biain prest dago horretan laguntzeko. Arkitekto bat ere etorri zait, laguntzeko gogoz, eta unibertsitateko elementu arkitektonikoen glosario



bat prestatuko dugu. Agian egongo da norbait marrazkiak edo komikiak egiten trebea dena, eta, beharbada, dibulgaziorako argitalpen bat egin liteke. Modu askotara lagun daiteke, nork bere esparrutik, eta, zorionez, herritarrak mugitzen hasi dira, eta gehiago ere etorriko dira. Oñatin talentu handia dago, eta jendea mugitzen denean, gauza asko egin daitezke.

Kapital hori guztiori antolatu edo egituratu egin beharko da nolabait. Zer duzu buruan?

Oraindik ez dago egitura finkorik, baina, bai, sortu beharko dugu zerbait. Ondarearen jabearekin –Foru Aldundia– eta turismo arduradunekin koordinatuta egon beharko da, noski. Nire asmoa litzateke 2026/27 ikasturtean zehar hainbat ekitaldi antolatzeari unibertsitatean –hitzaldiak, kontzertuak, erakusketak, bisita gidatuak, antzerkia...– herritarrak kontzientziatzeko, eta bien bitartean tajuzko elkarte edo egitura bat sortzen joatea.

Aldundiarekin harremanetan zaudete, beraz.

Bai, Oñatiko udalari ere eman diogu gure asmoen berri, baina erakundeetan gauzak astiro joan ohi dira eta ekimena herritarrok hartu behar dugula uste dut. EHUren Udako Ikastaroetan ere antolatu dute unibertsitateko zaharberritze lanen inguruko saio bat. Beraz, badirudi gauzak mugitzen hasi direla, poliki-poliki. Gure asmoa da arte kontuetan erreferente diren adituak eta lehen aipatu ditudan beste unibertsitate horietako ordezkariak Oñatira ekartzeari, arduradun politikoak eta herritarrak, oro har, jabetuz joan daitezen hemen dugun aberastasunaz.

Nondik datorkizu Sancti Spiritus unibertsitatearekiko jakin min edo lilura hori?

Hemezortzi urterekin Salamancara joan nintzen itzulpengintza ikastera, eta han nengoela errenazimenduko kulturaz eta humanismoaz ikasteko aukera bikaina



Jon Sagarzazu Oxfordeko Chryst Church Collegeko jantokian, goian, eta Cambridgeko St Johns Collegeko atarian, behean.



Salamancako unibertsitatean itzulpengintza eta filosofia ikasketak egin nituen, eta aukera bikaina izan nuen errenazimenduko kulturaz eta humanismoaz ikasteko. Halaxe hasi nintzen garai hartako eraikinek esaten zutena interpretatzen.



izan nuen. Gero filosofia ikastera geratu nintzen eta urte horietan hasi nintzen Errenazimenduko filosofia eta garai hartako eraikinek esaten zutena irakurtzen.

Ondoren, 30 urterekin, Oñatira bueltatu nintzen, hezkuntzan lan

egitera, eta Sancti Spiritus eraikinari begiratzen nion aldiro antzekotasun handiak ikusten nizkion Salamancan ikusitakoekiko, eta halaxe hasi nintzen ikertzen, afizionatu gisa, nire denbora librean. Pentsatzen nuen hori guztiori ondo ikertuta egongo zela, baina konturatu nintzen hutsune handia zegoela unibertsitateko irudi edo eskultura askoren esanahiaren inguruan. Orduan hasi nintzen Europako unibertsitate garaikide garrantzitsu nagusienak aztertzen nire oporraldiak aprobetxatuz, eta, poliki-poliki, XVI. mendeko pentsamenduan sakonduz ikonografia horren bidez esan nahi zutena interpretatzen saiatzen naiz. Esan dizudan moduan ni itzul-tzailea naiz, eta azken batean, hizkuntza sinbolikoan dagoen Humanismoaren mezua itzultzen edo interpretatzen saiatzen naiz.

Rodrigo Mercado Zuazolaren bizitza eta ibilbidea ere ikertu duzu, ezta? Zer nabarmenduko zenuke?

Bai, azken batean unibertsitatean ikusten dugun ikonografia Zuazolaren burutik pasa zen eta haren bizi-esperientziekin du lotura; beraz, saiatu naiz, bai, haren ibilbidea jarraitzen, nondik nora ibili zen, norekin, zer ikusi zuen... Adibidez, badakigu non bizi izan zen Valladoliden –etxearen alokairuko paperak ditugu–, Salamancan non bizi izan zen ere gutxi gora behera, badakigu, baina oraindik hutsune asko daude haren bizitzaren inguruan, eta egiak ez diren hainbat gauza ere idatzi izan dira.

Zer nabarmenduko nukeen Zuazolaren bizitzatik? Nik uste dut ez garela kontziente zer izatera iritsi zen. Kale Barriako familia xume batean sortua, parrokiako kapilau izatera bideratu zuten gurasoek, baina garai hartan apaizak soberan omen zeuden parrokian, eta ikastera bidali zuten Zaragozara. Han ohartu omen ziren buruz oso azkarra zela, eta Salamancara bidali zuten Zuzenbidea ikastera eta Granadako kantziler izatera



▼
Salamancako katedraleko hilobi batean ikus daitezke Sancti Spiritus unibertsitateko fatxadan dauden santen irudiak



▼
Herkules hidraren aurka borrokan agerdi da unibertsitateko eskulturetako batean. Garai hartako ikasleentzako mezu argia zen: unibertsitateko bidea zaila da, baina erronkak gaindituz iritsiko zara bikaintasunera



▼
Zuazolaren armarrarian agertzen diren bi eguzkien atzean San Agustinen neoplatonismoaren teoria ikusten du Sagarzazuk

iritsi zen; hau da, Espainiako lege-sistemako bigarrena –Tajo ibaitik hegoaldera eta Afrika iparraldeko lege-auzi guztiak bere ardurapean zeuden–. Horrez gain, Carlos V.aren aholkularia izan zen, eta, gogoratu, XVI. mendeko lehen erdiko Europako agintaririk boteretsuena izan zela Errege Katolikoen ondorena. Pentsa nora iritsi zen ofatiarra.

Berak gerora aitortu zuen moduan, hezkuntzaren pribilegioari esker eta bere abildade politikoari esker iritsi zen kargu horietara eta, horregatik, bere bizitzan pilatutako aberastasunekin Kolegio-Unibertsitate bat sortzea erabaki zuen, Oñatin, baina euskal herritar guztiei irekia, goi mailako hezkuntza jasotzeko aukera izan zezaten, Oñatiko kontzejuari 1934ko irailaren 24an bidalitako gutunean adierazten duen moduan.

Esan dugu urteak daramatzazula Sancti Spiritus unibertsitateko ikonografia azterzen eta interpretatzen. Zein da horren atzean dagoen mezua?

Labur esateko, Zuazolaren asmoa ikusten da unibertsitateko fatxadan. Pilastroien oinarrietan Herkulesen hainbat irudi ikus ditzakegu. Mitologia klasikoko heroi nagusietako bat zen Herkules,

eta bere bizitzan gainditu behar izan zituen erronka nagusietako batzuak –Nemeako lehoia hiltzen, Hidra garaitzen...– agertzen da. Hori, noski, garai hartako ikasleentzako mezu argia zen: unibertsitateko bidea zaila da, baina erronkak bata bestearen ondoren gaindituz iritsiko zara bikaintasunera. Eta goiko aldean 33 emakumeren irudiak daude, giza-bikaintasunera daramaten bertute klasikoak –zuhurtzia, sendotasuna, neurritasuna, fedea, itxaropena, maitasuna...– irudikatuz. Hau da, laburbilduz, jakinduriaren bila ikasleek jarraitu beharreko ibilbidea adierazten da iruditeria horren bidez.

Eta non dago espiritu santua?, galdetuko du norbaitek. Bada, berriki jakin dugu, Alcalako unibertsitateko ikonografia aztertu ostean, eraikinaren goialdean dauden antortxa edo zuzietan dagoela sinbolizatuta espiritu santuan.

Elizako doktoreen irudiak, humanisten erreferente diren San Agustín eta San Jeronimorenak, eta oraindik interpretatzea falta zaigun beste irudi batzuk ere badaude. Gauza asko esan digu unibertsitateak, eta asko dauka, oraindik, esateko.

Zuazolaren armarrarian bi eguzki

» Nire asmoa da jendea martxan jartzea, bakoitza bere arloan, eta hortik aurrera, ni neurera mugatuko naiz: humanismoaren bidetik unibertsitatearen mezua interpretatzen aमितzea

» Nire azken gogoak litzateke hona ikasleak ekartzea, Batxiler mailako ikasleak, unibertsitatea bisitatzeraz, baina ez eraikin historiko gisa solik, horren atzean dauden teoria filosofikoak, baloreak eta abar lantzeko baizik

egotearen arrazoia ere argitu duzu, ezta?

Unibertsitateko kaperako erre-
taula txundigarrian hogeitik gora
pertsoneiaren irudiak daude,
baina Jesukristo ez dago inon.
Harritzekoa, ezta? Baina sabaira
begiratzen baduzu, bi eguzki
agertzen dira, eta batek Jesukris-
toren izena darama, eta horren
atzean San Agustinen neopla-
tonismoaren teoria dago; hark
zioen Jesukristo dela arimari
argi egiten dion eguzkia, eguzki
espiritual bat, nolabait esateko,
eguzki naturala dagoen bezala.
Horregatik, unibertsitateko pa-
tioko lehen solairuko sabaian
–garai hartako ikasleen logelak
zeuden tokian– 1.400 eguzki ikus
daitezke, egurrezko kasetoietan,
hain zuzen ere, horixe zelako
ikasleen intimitaterako gunea,
Jainkoaren argiaren lekua.

Ez al duzu argitaratu behar ikerketa lan hori guzti hori?

Argitalpen potoloek beldurra
ematen didate. Aurrena, beste
aditu batzuekin egin nahi dut
kontrastea, eta, agian, zerbait
dibulgaritza aterako dugu. Nire
gogoak litzateke hona ikasleak
ekartzea, Batxiler mailako ikas-
leak, eta eraikin honek errepre-
sentatzen dituen teoria filosofi-
koak eta baloreak erakustea. ■



ATZEKO KALEKO JAIKAK 100 URTE

Atzeko Kaleko jaiak beti izan dira bereziak oñatiarrontzat, eta aurtan are bereziagoak izango dira, mendeurrena ospatuko baita.

Garai hartako kroniketan irakur daitekeenez, Atzeko Kaleko jaiak Txantxiku Txoko elkartean hasi omen ziren maitzen. Auzoko gazteak Kale Zaharreko lagunekin elkartzen ziren bertan, eta hauek San Migel Txiki jaiak ospatzen zituztela ikusirik, Atzeko Kalekoek ere Arantzazuko Ama Birjinaren egunaren inguruan jai egitarau bat antolatzea erabaki zuten.

Lehen hiru urteetan egun horretara mugatu ziren ospakizunak, baina laster zabaldu ziren asteburu osora. Badi-rudi, 'La Talanga' izeneko kuadrillaren inguruan biltzen zen gazte taldea izan zen bultzatzailea, Juan Zubia buru zela.

BERTSO BERRIAK, AUZOTARREI JARRIAK

Atzeko Kaleko jaiak beti izan dituzte beren berezitasunak. Horietako bat zen,

En Leturia el escaparate
es el que mas gusta en Oñate
y comprando a la Oñatiarra gasolina
Cualquier cuesta se domina

Si con las medicinas de Yurrita
un enfermo no resuelta
Quehaga un buen tratamiento
Con Do Benito al momento

Para que una persona bien viva
Debe comprar en la Cooperativa
Y el mejor café como Oleaga
En el pueblo no hay quien lo haga

▲ ▼ Goian, Atzeko Kaleko jai egitarauan argitaratzen zen 'Callejero'-aren adibide bat. Behean, programaren agurrarekin batera idatzitako bertsoa.

Auzo ontako zuzendariak
Sayaturik izugafi
Jafi digute kale onetan
Jayak egoki ta ugari
Goizetik sesenas pizkorturik
Gero zonuaz dantzari
Belosipedo, pelotari ta
Baita mutur jekalari
Azkenian traka pistu eta
Biyar ekin biar lanari

zalantza barik, jai egitarauarekin batera argitaratzen zen *Anuncio Callejero* delakoa –*Bertso berriak, auzotarrei jarriak*–. Auzoko denda, enpresa eta pertsonaia bereziei eskainitako bertso sorta izaten zen, umore tonuan beti ere. Oso arrakastatsua izaten zen; pentsa, jai egitaraua erosi egin behar izaten zen, eta berehala agortzen omen zen. Garai hartako probintzia mailako prentsan ere izaten omen zuten oihartzuna, non beti goraipatzen zuten Atzeko Kaleko jai egitarauaren literatur-etorria.

Programa eder horien bidez dakigu, adibidez, Atzeko Kalen garrantzi handia ematen zitzaiola auzoaren dekorazioari eta argiztapenari –Veneziar estilokoa izaten omen zen–. Urteroko jai egitarauarekin batera, balkoiak zintzilikarioekin apaintzeko eskatzen zitzairen bizilagunei. Horren erakusgarri da Iturritxoko iturria apaindu eta argiztatzeko ohitura, ia gaur egunera arte mantendu dena. Aurten apaingarri berria jarriko omen dute antolatzaileek.



Juan Zubiari 1975ean egindako omenaldiko argazkia



Auzoko gazte taldea txosnan lan egiteko prest, 1982an



'Oñati' globoaren aireratzea, 1959an



Juan Zubia, dantzariekin



Haurrentzako jolasak, 1975ean



Zinta lasterketako une bat, 1981ean



Margarita, Naparrenen lanean



Zinta lasterketako une bat, 1981ean

GARGANTUA ETA ZINTA LASTERKETA

Atzeko Kaleko jaietako beste berezitasun bat, zalantza barik, ume eta gaztetxoentzat antolatu izan diren askotariko jolas eta ekitaldiak izan dira, zein baino zein orijinalagoak. Horren adibide da, esaterako, auzoko eta inguruko kaleetan barrera ibiltzen zen Gargantua ikusgarria, aurrean jartzen ziren gaztetxo guztiak irensten zituen.

Eta nola ez aipatu gaztetxoek gozamenarako egiten zen eta gaur egun ere antolatzen den Zinta Lasterketa. Lehen urteetan bizikletan ez ezik astoan ere egiten omen zen, eta auzoko andereño ederrek ("las bellas señoritas") emandako opariak banatzen ziren zintak hartzea lortzen zuten artean.

Gozokiak eta jostailuak banatzen zituzten *Bonba Japoniar*-en jaurtiketak ere ume andana bildu ohi zuen, eta bestelako joko eta jolasak ere egiten ziren, haur eta gaztetxoek jostagarri: zakuen lasterketa, koilara-, zartagin- eta

itsulapikoen jolasak...

ASTO ETA TXIKITERO LASTERKETAK

Tetuango zirkuituan egiten zen asto lasterketak ere ikusmin handia sortzen zuen urtero. Irabazleaz gain, azken sailkatua ere saritu ohi zen. Eta nola ez aipatu txikiteroen lasterketa. Ibilbideko taberna bakoitzean txikito bana edan ondoren helmugara iristen zen lehenak irabazten zuen. Hauxe izaten zen ibilbidea: *Diostruena, Segundoena, Cenicero (buelta) Goiko Txurruka, Bar Pablo, Sukia, plazako Txurruka, Txaketua, Bujero, Perratzaille (buelta), San Anton kalea, Cuba, Bar Pio, Naparrena* eta amaiera *Portalekuan*.

Beste karrea bitxi batzuk ere antolatzen ziren, hala nola: igel edo txan-txikuena, kamareroena, eta emakume-entzako *herrada*- lasterketa. Azken hau burua gainean pitxer moduko bat ahalik eta azkarren eta erori gabe eramatean zetzan, Portalekutik Txarridunaraino.

ZEZEN FESTAK ETA KIROLAK

Uraingo zezen-plazan egiten ziren zezenketak ere ohikoak izaten ziren Atzeko Kalen. 'La Talanga' koadrilakoak zezen-zale amorratuak izaki, 40 urtez ez zen sekula zezen festarik falta izan jaietan. Gauze ere antolatu ohi zituzten zekorketak, gerora hain arrakastatsuak izan ziren suzko zezenen aurrekari, agian?.

Kirolek ere protagonismo handia izan dute beti Atzeko Kalen. Hala, 1930eko hamarkadaren hasieran boxeo-saio ikusgarriak antolatu zituzten. Ordurako probintzia mailan nabarmentzen hasita zeuden Azkabide, Elorza, Guridi eta Madina boxeolari oñatiarren parte hartzearekin.

Ez ziren falta izaten oinezko lasterketak, ziklo-pedestreak eta bizikleta karre-rak ere, modalitate guztietan: errepidean, erlojuaren kontra, abiadura probak... Baita moteltasun edo geldotasun karre-rak ere (carreas ciclistas de lentitud),





Atzeko Kaleko jaien berezitasunetako bat bere buruhandi eta erraldoien konpartsa izan da. Antzina, garrantzi handia ematen zioten Atzeko Kaleko jaietan auzoa argiztatu eta apaintzeari. Hala, urtero apaindu ohi zuten Iturritxo iturria. (Argazkiak: Jesus M^a Arzuaga eta Andres Arlanzon funtsak - Udal Artxiboa).



jendearen gozagarri. Pilota jaialdiek ere beti izaten zuten lekua jaietan, eta herriko bolo txapelketa ere jokatu ohi zen, San Martinen.

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK

Erraldoi eta buruhandiak ere Atzeko Kaleko beste bereizgarrietako bat izan dira, eta dira oraindik ere. Konpartsa propioa izan dute beti, bere pertsonaia bereziekin. Urte askotan, gainera, dragoi edo herensuge bat ere ateratzen zuten, txikien gozamenerako.

Atzeko Kaleko konpartsa Gernikako kaleetan barrena ere ibili zen, bonbardaketa oroitzeiko ekitaldi baten harira, eta beste herri batzuetako alardeetan ere parte hartu izan du –Otxandion, Beasainen, Legazpin...–.

MISS ETA ITSUSIEN LEHIAKETAK

Aspaldiko jai egitarau askotan irakur dai-tekeenez, Atzeko Kale auzo borrokalaria eta langilea zen, baina era berean ja-torra, herrikoia eta grazia edo umore-zigilu bereziduna. Eta hori argi ikusten da antolatutako ohi zituzten ekitaldi bitxi eta

orijinaletan. "Jaien bidez, une batzuetan bederen bizitzaren zailtasun eta atseka-beak ahaztea izaten zen" helburua, eta auzo osoak parte hartzen omen zuen festetan, "klase, adin eta sexu bereizketarik gabe", programetan behin eta berriz azpimarratzen zenez.

Horren guztiaren erakusle dira, adibidez, 1930eko hamarkadan antolatzen zen itsusien lehiaketa, emakumezko epaimahaiarekin. Miss lehiaketak ere antolatzen ziren eta baita karrozen desfile "handiak" ere, Manilako manto klasikoz apaindutako andereño politez beteta joaten zirenak.

Beste ekitaldi bitxiak bat emakumezko arrain-saltzaileen lehiaketa izaten zen; nork bere arrain fresko eta zapo-retsua ahots-goran hobekien saltzen zuena saritzen zen. Kukaña jokoa ere antolatzen zen, eta ikusmin berezia sortu ohi zuen Oñati Globo ikusgarriaren –5 metroko altuera izaten zuen– aireratzeak.

OSPITALERA BISITA ETA AURRESKUA

Ospitalera bisita izaten zen jai egitarauan hutsik egiten ez zuen beste ekitaldietako bat. Erraldoi eta buruhandien konpartsak



SEILUAK ETA POSTALAK mendeurrena ospatzeko

Filatelia eta Numismatika gaietan aditua den Luis Mari Maiztegiren ekimenez bina seilu eta postal aterako ditu Atzeko Kaleko jai batzordeak mendeurrenaren harira. Goiko irudietan ikus daitekeen moduan, seilu eta postaletako batean Atzeko Kaleko jaien mendeurrenari egiten zaio erreferentzia, eta bestean, berriz, urte askotan auzoko jaietako arima eta bultzatzaile nagusienetakoak izan ziren Juan Zubia eta Margarita Iturmendi gogoratuko dituzte. Auzoko jaietan bertan jarriko dituzte salgai –bi seiluak eta bi postalak 7€tan–.

lagunduta egiten zen bisita, Txarridunan hamarretakoa egin ondoren, eta bazkari berezia edo bestelako opariak ematen zitzaizkien bertako gaixoei.

Atzeko Kaleko jaietan oso presente zegoen beste ekitaldi bat erromeriaren atsedendian dantzatzen zen aureskua izaten zen, eta garai hartako programe-tan irakur daitekeenez, Kale Zaharreko gazteek dantzatu ohi zuten. Gainera, Guria tabernan kafe bat hartzera ere gon-bidatzen zuten Kale Zaharreko ordezkari-tza bat, bi auzotako gazteen artean zegoen harreman onaren erakusgarri.


ATZEKO KALE HISTORIAN ZEHA

Udaletxeko artxibozainak eskuratu digun informazioaren arabera, *Calle Santa Maria* izena zuten gaurko Atzeko Kalek eta Arantzazuko Ama kaleak, harik eta 1896an bereizi ziren arte. Hortik aurrera, 1896-1900 artean *Calle General Azcárraga* izena jarri zioten Atzeko Kaleri. Gero, 1900-1937 artean *Calle de Garay*, eta gerra ostean, 1937-1990 artean *Calle Zumalacarre-gui*. Atzeko Kale izena, ofizialki 1990ko otsailaren 8an ipini zion Udalak. ■

Oñatiko Udal Euskaltegia
Publikoa, irekia, guztiontzat

EUSKARA

PAUSO BATERA



MATRIKULA
EPEA ZABALIK

PLAZO DE MATRICULACIÓN ABIERTO
2026-2027



Matrikula aldia zabalik

UDAL EUSKALTEGIAN

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurten bere eskaintza zabala prestatu dute: Titulu ofizialak (HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak) lortzeko ikastaroak, ostalaritza eta zaintza arloko langileei zuzendutako ikastaro bereziak, Oñatiko euskara lantzekoak... Maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza zabala. Izena ematen duten ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da. Joan den ikasturteko zenbait ikasleren testigantzak bildu ditugu.

**16-18 urteko
gazteentzako C1
mailako kurtsoa
egongo da
aurten ere**



**IÑIGO BARRENA
KORTABARRÍA**

"Lanerako C2 titulua behar dut eta helburu horrekin eman dut izena"

Lanerako C2 maila behar du eta helburu horrekin eman du ikasturtea euskaltegian. "Aurretik, online ikasten ere ibili izan naiz, baina aurten denbora neukan euskaltegira etortzeko, eta aukera baliatu nahi izan dut". Oso gustura dago esperientziarekin. "Bete-beteko ikasturtea izan da; entzumena, idazmena, mintzamina... arlo guztiak jorratu ditugu, beste urte batzuetako azterketa ereduak ere landu ditugu, eta irakasle nahiz taldekideekin ere oso gustura egon naiz. Aukera ederra da euskaltegia herrian bertan edukitzea, maila eta ordutegi aukera zabalarekin; beraz, animatu egin nahi dut jendea izena ematera".



SORISLEY GRANT HECHAVARRÍA

"Semea Oñatin jaio da eta berba egiten hasten denerako ari naiz euskara ikasten"

Kubatarra sortzez, 2023an iritsi zen Oñatira senarraren lan kontratu bat tarteko, eta lehen ikasturtea osatu du euskaltegian. "Gure semea Oñatin jaio da, eta garrantzitsua iruditzen zait berba egiten hasten denerako neuk ere euskara ulertu ahal izatea". Herrian integratzeko ere euskara lagungarria dela uste du. "Denbora igaro ahala, bertakoen independentzia sentimenduekin identifikatuz zoaz, eta konturatzen zara, gazteleraz ere hitz egiten bada ere, euskara dela lehen hizkuntza. Ahal dela, 'B' maila lortu nahi nuke, lanerako ere garrantzitsua baita".



**ENARA GURIDI
MURUA**

"C1 titulua lortzeko asmoz eman nuen izena eta oso gustura nago"

Helburu argi batekin eman zuen izena iaz udal euskaltegian: C1 titulua eskuratzea. "Batxi-1 mailan C1 maila egiaztatzeko aukera geneukan eta lagun talde batek pentsatu genuen euskaltegian izena ematea, samurrago atera ahal izateko". Oso gustura dago esperientziarekin. "Asteazkenetik ikastordua diradi orduko bina saio- eta hala esanda, asko ematen du, baina taldeko gehienok lagunak ginenez, erraz eramanez. Gainera, gu euskaldunak izanik, gaiak ere ez ziren oso zailak, baina egia da beti ikasten duzula zerbait. Beraz, animatzen dut jendea izena ematera, azken batean C1 titulua garrantzitsua baita".

LEIHOAK
TOLDOAK

GORTINAK
ELTXO-SAREAK



MAKOR DENDA

📍 LIZAUR 6

☎ 943 106 235 / 688 862 512

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



AITOR ZUBIAGIRRE URZELAI

"Idazmena landu eta C1 titulua lortu nahi nuen"

Etorkizuneko lan aukeretan pentsatuz, C1 titulua eskuratzeko helburuarekin iaz eman zuen izena udal euskaltegian. "Ingurumen Zientziak ikasi ditut, eta administrazioan lan egin nahi badut, beharrezkoa da C1 titulua". Batez ere idazmena landu beharra zeukala ikusten zuen. "Nire ustez Batxilergoan ez da behar beste lantzen idazmena, eta nire burua ez nuen gai ikusten euskaraz behar den moduan idazteko. Beraz, masterra ikastearekin batera, C1 titulua eskuratzeko baliatu nahi izan dut kurtsoa, eta oso gustura ibili naiz euskaltegian; konfiantza handia lortu dut euskarazko testuak sortzeko orduan".



MERCEDES VIVANCO TERREROS

"Euskaraz berba egiteko beldurra galdu nahi dut"

Etxez etxeko laguntza zerbitzuan dihardu Mercedesek, eta hobeto komunikatu ahal izateko helburuarekin hasi da euskara ikasten. "Adineko pertsonekin egiten dut lan, euretako asko euskaldun zaharrak, eta uste dut hobe dela beraien hizkuntzan komunikatzea, alderantziz baino. Ulertu, nahiko ondo ulertzen dut euskara, baina berba egitea gehiago kostatzen zait, eta beldur hori galtzea da nire helburua". Oso gustura egon da euskaltegian. "Irakasleak oso jatorrak dira eta eskolako giroa ere oso atsegina izan da. Ordutegi aldetik arazorik ez badago, jarraitzeko asmoa dut".



JOSEAN HERNANDEZ HERNANDEZ

"Urteak neramatzan euskara ikasten hasteko gogo"

Urte asko zeramatzan euskara ikasten hasi guran, eta ordua iritsi zela erabaki zuen iaz. "Lan ordutegia pittin bat moldatu dugu eta horrek aukera eman dit arratsaldetan euskaltegira etortzeko. Gainera, etxe ondo-ondoan ipini dute orain euskaltegia; beraz, dagoeneko ez neukan aitzakiarik (barreak)". Arrazoi asko omen daude euskara ikasteko. "Lagunak direla, seme-alaben eskolako bilerak direla, lantokian... momentu eta egoera askotan behar izaten da euskara, baztertuta geratu nahi ez baduzu. Gainera, euskaltegian jende gaztea eta beste kultura batzuetako pertsonak ezagutzeko aukera izan dut eta oso aberasgarria izan da".

EUSKARA IKASTARO BEREZIAK

Zaintzaileentzako



- **Hartzaileak:** Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Oñatiko zaintzaileak
- **Helburua:** Ahozko oinarritzko komunikazioa lantzea. Zaintza-lanak euskaraz egin ahal izateko oinarritzko hizkuntza-baliabideak ezagutzea
- **Iraupena:** 60 orduko ikastaroa, urritik urtarrilera, 4,5 ordu astean
- **Ordutegia:** 15:00 - 16:30
- **Matrikula:** Doan. Udalak finantzaturako ikastaroa. (Baldintza: Oñatin adinekoak zaintzen lan egitea)
- **Izen-ematea:** irailaren 1etik 18ra

Tabernari eta ostalarientzako



- **Hartzaileak:** Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Oñatiko taberna, ostatu eta jatetxeetako langileak
- **Helburua:** Ahozko oinarritzko komunikazioa landuko da: bezeroak artatzeko erabiltzen diren hitz eta esaldi ohikoenak
- **Iraupena:** 60 orduko ikastaroa, urritik urtarrilera, 4,5 ordu astean
- **Ordutegia:** 9:00 - 10:30
- **Matrikula:** Doan. Udalak finantzaturako ikastaroa. (Baldintza: Oñatin ostalaritzako establezimendu batean lan egitea)
- **Izen-ematea:** irailaren 1etik 18ra

Elementu historikoak errespetatuta, espazioaren erabilera eta funtzioan eragitea bilatu duen birgaitzea

Elementu historikoak errespetatuta, plaza ondoko gunea birgaitu berri du Udalak, erabileran eta funtzioan “neurri bateko eraldaketa” eskaini guran. Haren esanetan, ez da elementu soilak eskaintzera mugatu den proiektua: “Espazio publikoek gizartearen behar eta erronka berrietara dute egokitu beharra. Oro har, eroso egoteko, itzalgunez gozatzeko, jolas egiteko, berdeguneekin zein natura elementuekin bat egiteko, harremanetarako... leku eroso eta inklusibo bat sortu da. Estetikoki berritzera eta azpiegiturak hobetzera (euri urak bideratzea, azpiegitura elektrikoa berritzea, argiteria sistema eguneratzea...) mugatu barik, espazioaren erabilgarritasunean eta erabilera desberdinen arteko elkarbizitzan eragin nahi izan da”.

ERDIGUNE HISTORIKOA

Herriko erdigune historikoa izanik, plazako birgaitzeek derrigor dute ondarea errespetatu beharra materialen aukeraketan, erabilitako koloreetan, eta, oro har, espazioaren izaeran. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondare zerbitzuak bermatu ohi du hori guztia. Kasu honetan ere, Udalak harekin landu eta adostu ditu esku hartzeak; haren onarpena dute, beraz.

HERRITARREN ESKAERA

Prozesuak esangura handia izan du proiektuaren lanetan, oinarria bera ere berezia izan delako. Alegia, *Plazako kioskoaren eta frontoiaren arteko zoladura berritzea eta berdeguneak egokitzea* proposamena bozkatuena izan



zen 2023ko Partaidetza Aurrekontuetan. Hori horrela, orduko proposamena osatu — aurrekontua handitu, proiektu integralagoa landu... — eta hirigintzatik haragoko lanketa egitea erabaki zuen Udalak. Hainbat sailek hartu zuten parte proiektuaren diseinuan: batez ere, Hezkuntzak, Haurrak eta gazteriak, Berdinta-

sunak eta Partaidetzak. Besteak beste, horrek eragin du askotariko herritarrei eta erabilerai egokituriko elementu berritzaileak erabiltzea.

“Herriaren erdigunean dago, eta babes zabala jaso zuen Partaidetzazko Aurrekontuetan. Bazegoen behar bat espazioa birgaitzeko eta era-

bilgarriago egiteko; espazioa berritzeko lanetara ez mugatzea erabaki zen. Adin guztietako jendea batzea, bakoitzak bere espazioa hartzea eta erabilera desberdinen arteko elkarbizitza ahalbidetzea bilatzen du espazioak. Lehen hilabeteen ostean, esan daiteke lortu dela helburua”, azaldu dute Udaletik.



;espazioa berritzeko lanetara ez mugatzea erabaki zen.

> Lorategi zabalak



Lorategiak erabilgarriago egin eta elementu naturalez gozatzeko aukera eskaintzeko, oztopo arkitektonikoak kendu, lorategiak zabaltu, horien forma egokitu eta bankuak berrantolatu dira. Horrek guztiak ahalbidetu du berdeguneetan esertzea eta espazioa modu naturalean erabiltzea.

> Elementu poetikoak



Lorategiak erabilgarriago egiteko helburuari erantzuten diote elementu poetikoak. Aulki edo mahai itxura izan arren, ez dira altzariak, erabil daitezkeen eskulturak baizik. Besteak beste, herritarren arreta erakartzea, jakin-mina sortzea eta jendea berdeguneetara gerturatzea bilatzen dute. Jolaserako elementu ere badira.

> Pilotalekuko botaharria



Luzeko pilotako modalitateetarako (bote-luzea, errebotea...) erabiltzen zen pilotalekuko botaharria jarri da ikurrinaren eta Nafarroako banderaren azpian —lehen, ezkerreko horman zegoen, bazter batean, eta hura ere ez zen haren berezko lekua—, herriko ondare ludikoa eta kulturala zentzura eroanaz. Horrela, balioan jarri da elementu historikoa. Iragana eta oraina elkarren ondoan jartzeko saiakera ere bada, nolabait.

> Gernikako Arbola



Orain arte izan duena baino protagonismo handiagoa eman nahi izan zaio Gernikako Arbolari, plaza inguruko erdigune sinboliko bilakatuz. Tartean, eraztun formako banku bat jarri da inguruan, itzalgune atsegin bat sortu eta herritarrei Gernikako Arbolarra gerturatzeko aukera eskainiz.

> Mahaiak eta aulkiak



Atsedean hartzeko elementuak eskaintzera mugatu barik, zaintza lanetan edo denbora pasa ari diren herritarrendako espazio desberdinak sortu dira. Oro har, irakurtzeko, ikasteko, lan egiteko, lagunekin edo ingurukoekin batzeko... aukera eskaintzen dute bertan dauden mahai eta aulkiek.

> Kioskoa



Kioskoaren elementu nagusiak eta orain arteko erabilera errespetatuta, espazio erabilgarriagoa sortu da. Horretarako, egurrezko harmailak jarri dira kioskoaren atzealdean, bertan dagoen plazatxoari erabilera aukera berriak eskainiz.

> Azokako aldapa



Bide irisgarri bat sortu da plazaren eta azokaren artean, besteak beste, eremua maila berean jarriz. Aldapa bat ere egin da azokako sarreran. Irisgarri bilakatzeaz aparte, azoka plazaren parte bilakatu da horri esker.



Foruen plazako argiztapen apaingarri eta funtzionala berritu egingo du Udalak

Plazako lorategia birmoldatzeko lanak amaitu eta argi-postea kioskoaren ondoan jarri ostean, Foruen enparantzako argiteria apaingarria eta funtzionala berritzeko asmoa du orain Udalak. Esku-hartze honen helburua da herriko plazako argiteria berritu eta optimizatzea, batetik, eta argindar kontsumoa murriztea, bestetik, energia eraginkortasun handiagoko LED teknologiadun argiak instalatuz.

Argi-Tech Ingeniería Lumínica enpresak idatzitako proiektuaren arabera, bi argi edo luminaria mota ezarriko dira: kale-argiztapenerako argi funtzionalak, batetik, eta udaletxeko fatxadara bideratuta egongo diren argi apaingarriak, bestetik.

Argi funtzionalak kioskoaren alde banatan dauden poste edo makuluetan instalatuko dira, eta potentzia erregulatzeko aukera izango dute. Udaletxera bideratuta egongo diren

argi apaingarriak, aldiz, kiosko ondoko posteetako batean eta Foruen plazako 10 zenbakidun eraikineko horman egongo dira, eta argi zuria zein koloretakoa proiektatzeko aukera izango dute. Gainera, potentzia eta kolorazioa erregulatzeko telekudeaketa-sistema bat izango dute, kolore-eszenen programazioa modu zentralizatuan eta eraginkorrean kontrolatzeko. Eraikin historikoaren balio estetiko eta instituzionala indartzea lortu nahi da, horrela. Gainera, instalatuko den argiteriak hiri-argiztapenaren inguruko araudi teknikoak eta efizientzia-irizpideak bete beharko ditu.

Udalak lizitaziora atera du Foruen plazako argi berriak eta kontrol sistemak hornitu eta instalatzeko lanak 60.000 euroko (BEZ barne) aurrekontuarekin, eta sei hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

Oñati 360°

» Herriko ondareko elementu nagusiak modu ikusgarrian bisitatzeko tresna digitala prestatu du Udalak

» www.turismoa.oñati.eus webgunean dago ikusgai

Udalak egokitu duten 'Oñati 360°' tresna digital berriari esker posible da, jada, herriko ondare arkitektoniko zein naturaleko txoko eta elementu nagusiak modu birtualean bisitatu eta orain arte sekula ikusi gabeko ikuspegietatik behatzea. posible da, gainera, ohiko bisita turistikoetan ikusterik ez dagoen hainbat lekutan barneratzea –Bidaurreta monasterioko klaustroa, kanpandorrera igotzeko eskailerak...–, Sanct Spiritus unibertsitateko, Bidaurretako eta parrokiako erretaula ikusgarrietako detailerik txikiena deskubritzea –altueran dauden eskulturak aurrez aurre erakusten zaizkigu–, edo kanpandorretik dauden bista zoragarriez gozatzea.

» XABIER IGARTUA / Turismo zinegotzia

» Ondare aldetik Oñatik duen aberastasuna balioan jartzeko beste modu bat da



Eraikin edo elementu bakoitzean aurrera eta atzera, gora eta behera, nahieran mugitu ahal izango gara, eta zenbait lekutan informazio osagarria eta bereizmen handiko argazkiak ere ikusi ahal izango ditugu. "Ondare mailan Oñatik duen aberastasuna balioan jartzeko beste bide bat da, herritarrentzat ez ezik, bisitari potentzialentzat ere interesgarria izan daitekeena", adierazi du Xabier Igartua zinegotziak. *Sisu Studiok* egin prestatu du mapa digital berria eta *Next Generation* funtsetatik finantzatu da –14.700€ (+BEZ)–. ■



Oñatiko ondareko elementu nagusiak klik gutxitan ikusteko aukera ematen du 360° mapak



Ohiko bisita turistikoetan bisita ezin daitezkeen lekuak ere ikusgai daude bideoan



Erretauletak goi aldeko irudiak xehetasun eta bereizmen handiz ikusteko aukera dago



Kanpandorrera igotzeko eskailerak eta klaustroaren airetik ikuspegia ere ikus daitezke




**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**
Ultzein kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIAK
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



IKASTURTE BERRIRAKO PREST EMAKUMION ETXIAN

Irailarekin batera hasiko da ikasturte berria Emakumion Etxian. Ireki berri den espazioak jardueraz betetako lehen ikasturtea du aurretik: Emakumeentzako ikastaroak, LGTBQ+ kolektiboko pertsonen bideratutakoak, gizonentzako proposamenak, gazteentzako, familientzako, emakume migratuentzako, eta beste asko. Etxia herritar guztiei irekita dago, eta egitarauan ere herritarren aniztasuna kontuan hartzeko saiakera egin da, etxeko kideen esanetan. Ikastaro, kultur-ekitaldi edo gogoeta-saioez gain, bi zerbitzu jarriko dira martxan irailean: aholkularitza psikologikoa eta juridikoa.

Helburua argia da: Emakumion Etxia topagune bizi, ireki eta erreferentziatzeko bihurtzea.

IKASTAROA

Ikuspegi feminista oinarri hartuta hausnarketa, formakuntza, saretzea eta ahalduntzea helburu dituzten ikastaro eskaintza zabala prestatu da ikasturte berrirako: sorkuntza tailerrak, gorputzaren eta ongizatearen inguruko saioak, dantza eta mugimendu proposame-

nak, autodefentsa feminista digitala, emakume migratuen topagunea, amatasunari lotutako bidelagun taldea, edo gizontasunaz hausnartzeko tailerrak eta taldea, besteak beste.

AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA PSIKOLOGIKOA

Emakumion Etxiak bi aholkularitza zerbitzu eskainiko ditu irailetik aurrera, emakumeen ongizatea, ahalduntzea eta eskubideen defentsa indartzeko.

Aholkularitza psikologikoa: arreta indibiduala eskainiko du ongizate emozionala, autozaintza, harreman gatazkak, bizitzako trantsizioak, indarkeria matxista

edo diskriminazio egoerak bizi dituzten emakumeei laguntzeko. Zerbitzua irailearen 21etik aurrera emango da, bi astean behin.

Aholkularitza juridikoa: informazioa eta orientazioa eskainiko ditu emakumeen eskubideekin lotutako gaietan, besteak beste indarkeria matxista, banaketa eta dibortzio prozesuak, lan-eskubideen urraketak, atzerriartasunari lotutako auziak edo bestelako diskriminazio egoerak jorratzeko. Zerbitzu hori ere irailearen 21ean hasiko da, hilean behin.

Bi zerbitzuak erabiltzeko aurrez hitzordua eskatu beharko da, Emakumion Etxian edo Gizarte Zerbitzuetan.

EMAKUMION ETXEKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera 10:00-13:00 eta 16:30-20:00. Ordu horietatik kanpora ere –eguerdiko orduetan edo asteburuetan– egongo da Etxia erabiltzeko aukera, bilera, ikastaro edo bestelako ekitaldiak burutu ahal izateko.

- Irailaren 11ra arte goizez bakarrik egongo da irekita (10:00-13:00)
- Irailaren 14tik aurrera ohiko ordutegia

HARREMANETARAKO: 943780699 / 688785247 / emakumionetxia@onati.eus

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLUTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SOKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHiago

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Mikel Egaña Urrutia

Aseguruak

Eskatu aurrekontua konpromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@seguritas.catalanaoccidente.com

EMAKUMION ETXEKO EGIRAUA - Iraila

kastaro eta zerbitzuez gain, hileroko programazioa izango du Emakumion Etxiak: hitzaldiak, literatur solasaldiak, dokumental emanaldiak, antzerkia, musika emanaldiak eta beste asko..

Kartelen bidez, sare sozialetan eta ohiko herri komunikabideen bitartez emango dute hileroko egitarauaren berri, baina informazioa whatsapppe edo emailez ere jaso nahi bada, herritarrek aukera dute harpidetza egin eta informazio guztia zuzenean jasotzeko. Emakumion Etxian bertan edo web gunearen bidez egin daiteke harpidetza.

IRAILEKO EGITARAUA

• FORMAZIO SAIOAK:

'Antolaketa eredu horizontaleko gakoak'

IRAILAK 11 eta 12

Antolaketa eredu horizontalaren inguruko gogoeta partekatze formazioa eskainiko digute Aise kooperatibako Garoa Gartzandia eta Ana Perez Cachon-ek **irailaren 11n eta 12an** egingo diren formazio saioetan.

Ostiralean, 18:00etatik 20:00tara, **"Entzutea erdigunean. Zein eragin du entzuteak taldeetako parte-hartzeari eta erabakiak hartzeko moduan?"** izenburupean entzutearen inguruan gogoeta egiteko aukera izango dugu. Saio hau herritar guztieentzat irekia izango da, interesa duen edonork parte hartu dezake.

Larunbatekoa, berriz, etxekideentzako formazioa izango

da. **"Horizontaltasunari eusten.**

Zein tresna eta praktika eskaintzen ditu soziokraziak erantzukizunak partekatze eta proiektu kolektiboak sostengatzeko?" (10:00-13:00)

• HITZALDIA:

'Banaketa prozesuetarako gako feministak'

IRAILAK 21

Banaketa prozesuen inguruko hitzaldia eskainiko du Irule abokatu taldeak: banaketa prozesuen nondik norakoak, zaintza-erregimenen gaineko azalpenak, neurri ekonomikoak eta abar landuko dira. Emakumeentzat, **irailaren 21ean, 18:00etan.**

• ERAKUSKETA

IRAILAK 11-25

Udalak ematen duen Selma Huxley Barkham ikerketa bekaren bitartez Edurne Iriondok burutu duen lanaren

–Oñatiko fabriketan emakumeen

(ezinbesteko) lana– aurkezpena

egingo da hilaren 10ean (18:00) kultur etxeko zine aretoan. Hilaren 11tik 25era bitartean (10:00-13:00 /16:30-20:00) emakumion etxeko ganbaran lanaren gaineko erakusketa egongo da ikusgai.



Garay fabrikan egiten zuten poxpolu kaxaren papera

• ANTZERKIA

'Bye bye gizontxo.

Maskulinitateaz bi hitz'

IRAILAK 16

Umoretik gizontasunaz gogoeta egiteko aukera eskaintzen duen antzezlan, **Barrunbe** proiektuaren eskutik. Herritar guztientzat, **irailaren 22an, asteartea, 18:00etan.**



Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Z ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

Coinbroker
EUSKADI

ASEGURU ARTEKARITZA

☎ 943 08 90 06
☎ 688 77 45 31
✉ oinati@coinbroker.eus
📍 Arantzazuko ama 9, behea



"Lan egiteko aukera lanbide gutxi batzuetara mugatua izan dute emakumeek 80ko hamarkadara arte"

> Selma Huxley bekaren bidez, emakumeek Oñatiko fabriketan egindako ekarpena ikertu du Edurne Iriondok.

> Irailaren 10ean aurkeztuko du lanaren emaitza.



Edurne Iriondo, ikerketaren egilea, eskuman, Izaro Elorza alkate eta Berdintasun batzordeko burua, eta Jone Arriolabengoa, teknikariarekin

mist, Ezpeleta, Betik...– jardun izan duten emakumeen jatorria, hezkuntza maila, lanpostuak, lan baldintzak, ardurak eta bestelako informazioa jasotzea izan da helburua, Oñatiko industriaren historia osatuago bat eduki ahal izateko.

Iriondok amaitu du, jada, bere ikerketa lana eta irailaren 10ean aurkeztuko du emaitza, kultur etxeko zine aretan (18:00). Ekitaldi irekia izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

53 EMAKUMEREN TESTIGANTZAK

Egindako lanarekin gustura dagoela aitortu digu Iriondok. Ondorioen artean, hauxe nabarmendu digu: "Emakumeek parte-hartze zabala izan dute herriko industrian. Adibide modura, 1924an industria sektoreko lantegietako enplegatuen %30 emakumeak ziren. Hala ere, nahiz eta lan-indar zabala izan emakumeena, gehiengoak lanbide gutxi batzuetara mugatua izan du industrian lan egiteko aukera 1980ko hamarkadara arte".

Hiru ataletan egituratu du lana Iriondok. Aurrenekoan datu historiografikoak bildu ditu: industria negozioetan titulartasuna izan duten emakumeak, ekoizpen arloan jardundako emakumnen kopurua... Bigarren ataletan testigantzak jaso ditu, 53 emakumeekin egindako elkarrizketa soken bidez. "Hauetako 50 fabriketan enplegatuta egon dira eta daude; eta beste hiruk, ezkondu ondoren, etxean eta garajeetan lan egin zuten ekoizpen jardunean", zehaztu du. Azken ataletan, begirada feministatik, gizonekiko parekotasun faltan oinarritutako hutsuneak aztertu ditu.

Selma Huxley bekari esker burutu den laugarren azterlana da. Aurretik, 'Oñatiko emakumiak errekadutan. XX. mendeko kometzio txikiaren etnografia feminista bat', 'Bizitzak erdigunean. Oñatiko zaintzaileek genealogia feminista 1950-2020' eta 'Oñatiko emakume mojak: izaera, bizimodu eta ekarpena ikuspegi feministatik' lanak egin dira. ■

IRAILAREN 10EAN EGINGO DA IKERKETA LANAREN EMAITZAREN AURKEZPENA KULTUR ETXEKO ZINE ARETOAN, 18:00ETAN

Urte eta erdiko lanaren ostean, prest da, jada, IV. Selma Huxley Barkham bekari esker burutu den ikerketa lanaren emaitza. Gogoratu, Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpena aztertu eta plazaratzeko asmoz sortu zuela Udalak bi urtean behingo beka hau, Euskal Herriko itsas-historia ikertzen hainbat urtez Oñatin bizi izan zen Selma Huxley Barkham ikerlariaren omenez.

Bekaren laugarren ediziora bi proposamen aurkeztu ziren, eta epaimahaiak Edurne Iriondo Plazarena hobetsi zuen: 'Oñatiko fabriketan emakumeen (ezinbesteko) lana'. Izenburuak argi adierazten duen moduan, Oñatin industria modernoa (1866) hasi zenetik hona egon diren lantegietan –La Minerva poxpolu fabrika, Garay, Zahor, Txi-



Ikerketa lanaren emaitza aurkeztu ostean, erakusketa bat egongo da ikusgai **Emakumion Etxian irailaren 11tik 25era** (10:00-13:00 / 16:30-20:00). Edurne Iriondok burutu duen azterlana laburbiltzen duen ikus-entzuneko bat, emakumeek enpresetan burutu izan duten jardunaren erakusgarri diren hainbat produktu eta katalogo, eta beste zenbait emaitza egongo dira bertan ikusgai modu bisualean. Bisita gidatuak egingo dira irailaren 15 (EUS) eta 16an (GAZ), 11:00etan, eta irailaren 17 (EUS) eta 23an (GAZ), 18:00etan.

AISIALDIKO BEGIRALE TITULUA OÑATIN ETA EUSKARAZ

Bilera informatibo irekia egingo da **irailaren 14an**, kultur etxean, 18:00etan



Bi urtean behin egiten duen moduan, aurten ere aisialdiko begirale titulua –Eusko Jaurlaritzak homologatua– eskuratu ahal izateko ikastaroa antolatu du Udaleko Hezkuntza departamentuak, Hezten-Aisialdi Euskaltzalea elkartearekin lankidetzan.

Urriaren 24an hasi eta ekainaren 5era arte luzatuko da ikastaroa –24 larunbat (9:00-15:00) guztira–. Azaroaren 28-29an asteburuko egonaldia egingo dute aterpetxean. Denera, 150 ordu teoriko eta 160 ordu praktiko egin beharko dituzte; azken hauek egitasmoren batean osatu beharko dira, zati teorikoa amaitu eta bi urteko epean, gehienez. Ikastaroan parte hartu ahal izateko, berau garatzen den urteetan zehar 18 urte betetzea eskatzen da, eta DBHko titulua edukitzea. Ikastaro honek 4,5 puntuko balioa du Oñatiko udaleku irekietan begirale aritzeko.

Ikastaroak 500€-ko kostua du, baina Udalak %75eko laguntza ematen die ikasle eta langabetuei, eta %50ekoa gainontzekoei. Plaza mugatuak dira. Urriaren 9an amaituko da izena emateko epea. Irailaren 14an xehetasun guztiak azaltzeko bilera irekia egingo da kultur etxeko bilera gelan (18:00).

Kanpo espazio inklusiboa egokitu du Udalak Txiki Txoko haur eskolan

Kanpo espazioa barrukoaren hedapen moduan erabili ahal izateko aukera emango duen estalki argitsua egokitu dute



Udako oporraldia baliatuz, TxikiTxoko haur eskolaren atzealdean aterpea egokitzeko lanak burutu ditu Udalak, ondoko argazkian ikusten den moduan.

Haur eskola publikoen doakotasuna ezartzearekin batera (2023/24 ikasturtea) gora egin zuen nabarmen Txiki Txokoko matrikulazioak, eta igoera horri erantzun ahal izateko bosgarren gela egokitu zuen Udalak, 42 haurri zerbitzua emateko aukera izatetik 55era pasatuz.

Horrekin batera, hainbat lan osagarri egitea erabaki zen, matrikulan izandako gorakada horri kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko. Besteak beste, eraikinaren atzealdean aterpea eraikitzea erabaki zen, *Kimubat* enpresak idatzitako proiektuaren arabera, kanpoko espazioa barrukoaren hedapen moduan kudeatu ahal izateko urte osoan zehar. Hala, argitasun handiko estalkia egokitu da, udaberri eta udazkeneko egunetan ere konfort baldintzak eskainiko dituen.

Bi fasetan egokitu da aterpea. Iazko udan egokitu zen lehen zatia (21.152€), eta aurten osatu da azpiegitura (39.935€, BEZ kanpo). Kanpo espazio inklusiboa prest egongo da kurtso berrirako. ■

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Udal Plangintzako Aholku Kontseilua berritzeko deialdi berria ireki du Udalak

> Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) tramitazioa berraktibatzeke, Aholku Kontseiluaren osaera berritzeko deialdia egin du Udalak.

> **Irailaren 18ra** arteko epea dago izena emateko.

Oñatiko Udalak Udal Plangintzako Aholku Kontseilua berritzeko deialdia ireki du, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) tramitazioarekin aurrera egiteko beharrezko urratsa baita organo hori eratzea.

Aholku Kontseilua herriko elkarte eta eragileek osatutako organo kontsultiboa da, eta HAPOaren prestaketan eta tramitazioan aholkularitza eta ekarpenak egiteko eginkizuna du.

2025eko otsailean egin zen Aholku Kontseilua berritzeko azken deialdia. Ordutik hona, HAPOaren dokumentazioa lantzen jarraitu da, eta udal gobernuaren asmoa da datozen hilabeteetan planaren behin-behineko onarpena izapidetzea. Horretarako, lehenik eta behin, indarrean dagoen araudiak aurreikusten duen Aholku Kontseilua berriro eratu behar da.

ELKARTE ETA HERRI-ERAGILEEI DEIALDIA

Aholku Kontseiluan parte hartu nahi duten herriko elkarte eta herri-eragileek 2026ko uztailaren 27tik irailaren 18ra bitartean aurkeztu ahal izango dute eskaera.

Udal ordezkariak duten alderdi politikoez gain, ondorengo arloetan jarduten duten elkarte eta eragileek parte hartu ahal izango dute: **landa auzoak, auzo-elkarteak, ingurumenaren babesa, abeltzaintza eta nekazaritza, basogintza, kultur ondarea, kirola, dibertsitate funtzionala, merkataritza eta ostalaritza, mugikortasun iraunkorra, enpresa-elkarteak, sindikatuak, gazteria, hirugarren adina, talde feministak, kultur- eta jatorri-aniztasuna eta eskola-komunitatea**, besteak beste.



Legez eraturako elkarteetako nahiz bestelako herri-eragile antolatuetako ordezkariak izan daitezke Aholku Kontseiluko kide. Norbanakoek ezin dute parte hartu.

Kontseiluko kideak alkate dekretu bidez izendatuko dira, aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren. Behin organoa erata, lehenengo bilera urrian egitea aurreikusten da. Aholku Kontseiluaren lehenengo lanak Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) behin-behineko dokumentua

aztertzea eta haren inguruko iritzia ematea izango dira. Behin plana onartuta ere, egiturazko antolamenduari eragiten dioten berrikuspen, aldaketa edo plangintza-tresna berriak izapidetzen direnean ere elkartuko da, prozesu horien berri jaso eta bere iritzia emateko.

ETORKIZUNeko Oñati

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra datozen hamarkadetan Oñatiko lurralde-antolamendua baldintzatuko du; besteak beste, etxebizitzak, jarduera ekonomikoak, ekipamendu publikoak, azpiegiturak eta espazio berdeak non kokatuko diren zehaztuz. Horregatik, Udalak herriko elkarte eta eragileei dei egiten die Aholku Kontseiluan parte hartu eta herriaren etorkizunaren inguruko hausnarketan ekarpenak egin ditzaten.

IZENA EMATEKO

Aholku Kontseiluan parte hartu nahi duten elkarte eta herri-eragileek irailaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dute eskaera udal erregistroan, modu honetara:

- telematikoki legez eraturako elkartearen kasuan
 - aurrez aurre, HAZ bulegoan edo telematikoki bestelako herri-eragile edo taldeen kasuan
- (Informazio gehiago: 943 78 04 11 (126 luzapena / partaidetza@onati.eus).

HAPOaren hasierako onarpenerako edukia herritarren eskura

Aholku Kontseiluaren eraketa prozesuarekin batera, herritar guztiek HAPOaren hasierako onarpenerako edukia eta irizpide nagusiak ezagutzeko aukera izango dute.

ERAKUSKETA

IRAILAK 1- 17

Horretarako, irailaren 1etik aurrera, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 18:00etara jendaurreko erakusketa jarriko da Santa Ana Antzokian. Bertan, planaren proposamen nagusiak, aurreikusitako garapenak eta etorkizuneko Oñatirako planteatzen diren irizpideak azalduko dira.

AZALPEN SAIOA

IRAILAK 17

Era berean, irailaren 17an, arratsaldeko 18:00tan, azalpen saio bat egingo da Santa Ana Antzokian, herritarrei eta interesatuei HAPOaren nondik norakoak azaltzeko eta prozesuaren hurrengo urratsen berri emateko.

Udalak urrats berria egin du basogintza jasangarrian



Artiako Herri Onurako Mendien Antolamendu Planari hasierako onarpena eman dio

Oñatiko udalbatzak hasierako onarpena eman dio Artiako Herri Onurako Mendien Antolamendu Planari, urrats berria eginez basogintza jasangarrian. Osotara, 776 hektarearen 20 urterako kudeaketa definitu da —2026 eta 2046 urte bitarterakoa—, 2015ean egindako kudeaketa plana eta Osoko Bilkurak 2013an aho batez onarturiko *Basogintza Herri-jorran* prozesu parte-hartzailetik ondorioztatutako baso-politikaren printzipioak oinarri —bertako zuhaitz espezieak bultzatzea, basoak ematen duen su-egurra aprobetxatzea, konifero berrien landaketak baztertzea...—. Tantai baso jabe kooperatibak egin du planaren eguneraketa.

Gaur egungo egoeran, gaurko egur prezioan eta baldintzetan, 20 urteko epealdian 3 milioi euroko balantze positiboa lukete esku hartzeek. *Basogintza Herri-jorran* parte hartze prozesuaren ondorioetan jasoa dagoen moduan, ingurumenaren zaintzara bideratuko litzateke esku hartzeetatik lortutako dirua.

BABESTUTAKO LUR SAILAK

Artiakoak, babesturiko lur sailak dira, Aizkorri-Aratz Parke Naturalean eta Natura 2000 sarearen barruan baitaude. "Oro har, espezie autoktonoei osatutako basoak lantzea bilatzen du planak; eta ekoizpenaren eta biodibertsitatearen kontserbazioaren arteko oreka", azaldu du Iker Oñate Aiaitui Ingurumen batzordeburuak. "Horretarako, hainbaten artean, koniferoak espezie autoktonoengatik ordezkatzeko —arreta berezia jarriko da gaixotuta dauden eremuetan—; landaredia autoktonoa berreskuratzeko edota indartzeko; fauna kontuan izango duen kudeaketarako; hornidura jasangarria zein bidezkoa bermatu eta herritarren eskaerak erantzungo dituen egur aprobetxamendurako; suteen prebentzio eta larrialdietarako sarbidea bermatzeko azpiegitura sare mantentzeko; eta mendiaren erabilera osagarriari sendotzeko —besteak beste, hezkuntza eta ikerketa jarduerekin egin daiteke hori— ekintzak proposatzen ditu".

HAINBAT EKINTZA MARTXAN

Hasierako onarpenarekin batera, hasiak dira lau lur sailtako lanak. "Intsinis pinuen gaitzak jota dauden unadetan premiazkoa zen esku-hartzea, besteak beste, zuhaitzen erorketak eta degradazioa ekiditeko. Horregatik hasi dira zenbait esku hartze; bat datoz plan eguneratuak zehaztutako kronogramarekin", azaldu du Ingurumen batzordeburuak. Tartean, su-egurra atera da, herritarren artean banatzeko. Datozen asteetan zabalduko da interesa dutenendako izen-ematea.

Lau landa lur erosi ditu Udalak

Basogintza politika jasangarria oinarri, saltzeko interesa duten herritarren landa lurak erosteko deialdi publiko berria egin du Udalak, baso eta ekosistemen kontserbazioa indartzeko eta bioaniztasunaren galera gelditzeko politikak oinarri. Helburu horiekin, aurtun ere, 40.000 euroko aurrekontua bideratu du lursailen erosketara.

Prozesua bukatuta, lau sail erosi ditu, orotara, 18.000 euroko aurrekontua bideratuta. Aurrekontuko partida osoa bideratu ez denez, geratu den diruarekin, deialdi berri bat egingo da urrian.

Ingurumen balioa oinarri, deialdiak bost interes-gune izango ditu zehaztuta: Natura 2000 eremutik kanpoko hegazti nekrofagoen babes eremuak; Aldakiño-Olapoto hiri basoarekin muga egiten duten basoak; Legazpi, Antzuola eta Bergara udalerrien arteko muga egiten duen mendilerroa; erreken zaintza eremuak; eta Bakue aldean dagoen *Iruetxaboleta* edo *Paganabar* deritzon eremua.

Araozko ostatuaren ustiaketa lizitaziora atera du Udalak

Araozko ostatuaren egungo kudeatzaileak zerbitzua emateari utziko dio urritik aurrera eta, beraz, lizitazio berria deitu du Udalak. **Irailaren 25era** arteko epea dago eskaintzak aurkezteko.

Aurreko lizitazioarekin alderatuta, hauek dira berritasun nagusiak: kontratua gauzatzeko epea 1+5 urtekoa izango da, 2032ko irailaren 30eko mugarekin. Egun horretatik aurrera ostatuaren kudeaketa Oñatiko udaletik Araozko auzora igaroko da.

Errentari dagokionez, kontratua egiten den egunetik martxoaren 31ra arte, proiektuarekin hasteko denboraldi baxua dela kontutan hartua, 50€/hilean izango da gutxieneko kanona, eta hortik aurrera, 800 eurokoa, orain arte bezala.

Ordutegiari dagokionez, igandetan irekita egon beharreko ordutegia orain artekoa baino laburragoa izango da. Hauxe izango da ordutegia: ostirala (12:00-16:00 / 18:00-23:00), larunbata eta jai egunak (11:00-23:00), eta igandeak (11:00-19:00). Oñatiko udalaren webguneko kontratatzailearen profilean kontsulta daiteke baldintza zerranda osoa.

Txosnen jardunean ikuspegi antiarrazista eta dekoloniala txertatzeko elkarrizketa eta hausnarketa saioa antolatu du Udalak

'Eta arrazakeria gorrotoa bakarrik ez balitz?' hitzaldi-tailerra egingo da irailaren 15ean

Hitzaldi-tailerrak pribilegio zuriaren sistema, arrazakeria soziala eta instituzionala, kulturartekotasuna eta bizikidetzak izango ditu hizpide, eta Oñatiko Txosna Batzordeak 'Hegoaldetik Enarak' Kooperatiba Txikiaren laguntzarekin garatuko duen ibilbidea ezagutzeko aukera eskainiko du.

Datorren irailaren 15ean hitzaldi-tailer bat egingo da kultur etxeko zine aretoan, **'Eta arrazakeria gorrotoa bakarrik ez balitz?'** izenburupean. Oñatiko Txosna Batzordeak bere antolaketa-dinamiketan eta txosna gunearen funtzionamenduan ikuspegi antiarrazista eta dekoloniala txertatzeko abiarazi duen prozesuaren baitan kokatzen da saio hau.

Ekimena Txosna Batzordeak diskriminazio-egoeren aurrean dituen praktikak, tresnak eta mekanismoak kolektiboki berrikusteko eta gero eta inklusiboagoa den jai-gune bat eraikitze gaitasunak indartzeko borondateak sortu da. Prozesua garatzeko komunitate-prozesuetan ikuspegi antiarrazista eta dekoloniala inplementatzen aditua den *Hegoaldetik*

HITZALDI-TAILERRA

'Eta arrazakeria gorrotoa bakarrik ez balitz?'

- **EGUNA:** IRAILAK 15, asteartea
- **ORDUA:** 17:30-19:30
- **TOKIA:** Kultur etxeko zine aretoa
- **HIZLARI-DINAMIZATZAILEA:** Tania Cañas (Hegoaldetik Enarak Kooperatiba Txikia)
- **HIZKUNTZA:** Saioaren hizkuntza nagusia euskara. Hizlariaren hizkuntza, gaztelania. Aldi bereko itzulpen zerbitzua egongo da, euskaratik gaztelaniara

Enarak Kooperatiba Txikiaren laguntza izango du. Horrez gain, Oñatiko Udala-ren babes ekonomikoa eta Partaidetzak eta Garapen Komunitarioko arloaren lankidetzak izango ditu.

Helburua da arrazakeriak aurreiritzi indibidualetatik harago nola jarduten duen aztertze eta elkarrizketarako, hausnarketarako eta ikaskuntza kolektiborako gune bat sortzea; baita desberdinkeriak erreproduzitzen laguntzen duten dinamika sozial, historiko eta instituzionalak jorratzea ere. Hitzaldi-tailerrak izaera sentsibilizatzailea, parte-hartzailea eta interperlatzailea izango du, eta hainbat gai landuko ditu, hala nola pribilegio zuriaren sistema, arrazakeria soziala eta instituzionala, kulturartekotasuna eta gizarte anitz bateko bizikidetzaren erronkak.

Saioaren helburua da elkarrizketarako, gogoetarako eta ikaskuntza kolektibo-

» Oñatiko Txosna Batzordea

"Badakigu badugula zer ikasi eta berrikusi gure jardunean ikuspegi antiarrazista txertatzeko"

"Oñatiko Txosna Batzordetik badakigu badugula zer ikasi eta berrikusi gure jardunean ikuspegi antiarrazista eta dekoloniala txertatzeko. Horregatik erabaki dugu



prozesu honi ekitea: arrazakeriaren aurrean prebentzio-, esku-hartze- eta erreparazio-mekanismoak garatzeko, eta txosnen antolaketan eta funtzionamenduan modu egonko-

rean txertatu ahal izango diren tresnak eta irizpideak modu parte-hartzailean lantzeko.

Era berean, ibilbide honek mota honetako espazioetan dauden pribilegioei eta botere-harremanei buruzko hausnarketa kolektiboa sustatzea nahiko genuke, gero eta inklusiboagoak izango diren espazioak eraikitzen jarraitzeko."

» Anik Zubizarreta / Partaidetzako zinegotzia

"Txosna batzordeak emandako urratsa aitortu eta balioan jarri nahi du Udalak"

"Eraldaketa prozesuak abian jartzeak kontzientzia eta ausardia eskatzen du. Pribilegio zuriaren sistemaz, diskriminazioez edo botere-harremanez



hitz egitea eta gai horiek to-kiko agendan nahiz eztabaida publikoan kokatzea ez da beti erraza. Urrats hori ematen duten kolektiboek sarritan kritikak eta zalantzan jartzeak jasan behar izaten dituzte, eztabaida

horiek gure errealtatearen alderdi deseroso eta maiz ikusezinak agerian uzten baitituzte. Horregatik, Udaletik Oñatiko Txosna Batzor-

deak emandako urratsa aitortu eta balioan jarri nahi dugu. Era berean, herritarrei, elkar-teei eta gainerako eragileei dei egin nahi diegu iraileko saioan parte hartu eta prozesu hone-tan bidelagun izan daitezen."

rako gune bat irekitzea, arrazakeriak aurreiritzi indibidualetatik harago nola funtzionatzen duen ulertzeko. Horretarako, desberdintasunak erreproduzitzen laguntzen duten dinamika sozial, historiko eta instituzionalak izango dira hizpide. Finean, gizarte anitz batean pribilegio zuriaren inguruan hausnartzeko gonbidapena izango da, bereziki jai-esparruetan, baina baita eguneroko bizitzako gainerako eremuetan ere.

Proposamen honen abiapuntu bereizgarria da aitortzea arrazakeriari aurre egiteko erantzukizuna ezin dela soilik pertsona migratuei eta arrazializatuiei egotzi. Sarri, haiek izan dira bizi dituzten diskriminazio-egoerak salatu, azaldu eta horiei aurre egiteko ahalegina beren gain hartu dutenak. Prozesu honen bidez erantzukizun hori gizarte osora zabaltzen lagundu nahi da.

Era berean, prozesuan zehar sortzen diren ikaskuntzak, metodologiak eta tresnak udalerriko beste kolektibo, elkarte eta eragileentzat ere baliagarriak izatea bilatzen da. Ildo horretan, Txosna Batzordeak abiatutako ibilbideak erreferentziak eta baliabideak sortzeko asmoa ere badu, Oñatiko jai-, kultura-, kirol- eta komunitate-esparruetan praktika inklusiboagoak sustatzen laguntzeko.

Saioa Tania Cañasek dinamizatu du. *Hegoaldetik Enarak* Kooperatiba Txikiko kidea da, eta erakunde horrek Oñatiko Txosna Batzordeari lagunduko dio prozesuan zehar datozen hilabeteetan. Tania esperientzia zabala du metodologia emantzipatzaile eta libertarioetatik (hezkuntza herrikoia) eragileak formatzeko eta prozesuak errazten, begirada dekolonial eta feministatik lan eginez. Saioa euskaraz izango da nagusiki; hizlariaren azalpenak gaztelaniaz izango dira. Aldi bereko itzulpen zerbitzua eskainiko da euskaratik gaztelaniara.

Amaia Erostarbek zinegotzi kargua utzi du



Udal taldeko kideen eta zenbait alderdikideren babesa jaso zuen Erostarbek agurrean

EAJren udal taldeko bozeramale izan den Amaia Erostarbek zinegotzi akta utzi du. Oñatiko EAJrekin eta udal taldearekin landutako hausnarketa partekatua ondo hartutako erabakia izan da, alderdiak ohar bidez jakinarazi duenez.

Uztailaren 23ko osoko bilkuran gaudu zen kargu uztearen ostean, "lasai" doala adierazi zuen Erostarbek, "egindako lanarekin pozik eta bere ibilbidean emandako guztiarekin ase". Ardura instituzionala utziko duen arren, Oñatirekin eta EAJ-PNVrekin lotuta jarraituko duela esan du Erostarbek, dagokion lekutik ekarpenak eginez. "Norbanakoen gainetik, talde gisa lan egitea da EAJren proiektua handitu eta aberasten duena, eta, ildo horretan,

gure udal taldea ondo prestatuta dago proiektuarekin aurrera jarraitzeko", adierazi du.

Oñatiren aniztasuna eta sentsibiltate ezberdinen arteko elkarrizketa eta akordioak eraikitzearen garrantzia nabarmendu ditu Erostarbek, eta eskerrak eman nahi izan dizkie familiari, udal taldeko kideei eta oñatiar guztiei, urte hauetan guztietan jasotako konfiantzazatik, babesazatik eta partekatutako bizipenengatik.

Oñatiko EAJk ere eskertu eta balioan jarri nahi izan du Erostarbek azken hamaika urteetan Oñatiko udalean egin duen lana eta oñatiarrenganako beti erakutsi duen konpromisoa, dedikazioa eta arura, bere onena emanez oñatiarren zerbitzura, beti ere.

Udalak eta AFAGIK lankidetza berritu dute

Hiru urterako lankidetza hitzarmen berria sinatu dute Udalak eta AFAGIK, Alzheimerre duten pertsonen senide eta lagunen Gipuzkoako elkarteak. Hitzarmenari esker, AFAGIK aholkularitza, arreta psikosoziala eta estimulazio kognitiboko tailerrak eskaintzen jarraituko du Oñatin, alzheimerre edo beste dementziaren bat hasierako fasean duten herritarrentzat. Gaixo eta familiei zuzenduta, AFAGIK Oñatin eskainiko dituen zerbitzuen truke 13.600 euro jasoko ditu urtero. Gaitzaren detekzio



goiztiarra egitea, garapena moteltzea eta gaixoen nahiz senideen bizi-kalitatea hobetzea da zerbitzuaren xedea.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

'Las voces de la República' liburua aurkeztuko du Joseba Eceolazak Oñatin

» Irailaren 15ean, kultur etxean, 19:00etan

Joseba Eceolaza Latorre (Iruñea, 1977) idazle, ekintzaile eta politikari nafarrak bere azken liburua –Las voces de la República– aurkeztuko du Oñatin, irailaren 15ean, kultur etxean (19:00). Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteko aurpegi ezagunenetakoa da Eceolaza, eta rol oso aktiboa izan du beti oroimenaren aldeko ekimenetan.

Eta Oñatin aurkeztuko duen liburua ere helburu horrekin dago idatzia. "Biktimekiko enpatia indartzeko beharrezkoa da errepresioaren detaile edo ñabardurak ezagutaraztea. Biktimei izen-abizenak jartzea eta beraien esperientzia pertsonalei buruz hitz egiteak enpatia eta elkartasuna indartzen ditu", dio idazleak.

"Uztailaren 18ko frankisten errepresio basatiak ahanzturan utzi du 1931ko apirilaren 14an geratu zena, eta hori ere gogoratu egin behar dugu", dio Eceolazak. "Monarkiatik errepublikarako aldaketa oso baketsua izan zen, bai Eibarren, bai Iruñean eta baita Espainia osoan ere. Aldaketa oso sakona izan zen, baina modu baketsu eta lasaian gertatu zen, eta hori goraipatu egin behar dugu, horren atzean balio ikaragarria duen emari edo gorputz etikoa ikusten delako".

Eceolazaren ustez memoria




JOSEBA ECEOLAZA
idazle, ekintzaile eta politikaria

ez da biktimenganako elkartasun instrumentu bat, ekintza moral bat ere bada. "Biktimen ahotsa eta kontakizunak berreskuratu eta oroitu behar ditugu, halako sarraskirik eta horren atzean dauden ideia eta baloreak berriro errepika ez daitezten. Errepublikako ahotsak berreskuratzeak erdibana du justizia historikotik eta bokazio pedagogikotik".

DOKUMENTU ETA TESTIGANTZA ARGITARAGABEAK

Eceolazak argitaratu gabeko hainbat testigantza eta dokumentu interesgarri bildu ditu liburuan. Horietako bat da Honorino Artetaren kontakizuna. "Fusilatzeraz eraman zuten, beste 52 preso errepublikarrekin ba-



tera, baina tiro egitean huts egin zuten eta korrika ihes egin ahal izan zuten. Bere lekukotzari esker dakigu nola izan zen 52 preso haien fusilamendua, nork parte hartu zuen, eta nolakoa izan zen bere ihesaldia, besteak beste. Balio historiko handiko dokumentua da".

Alejandro Lerroux ministro errepublikarrak Iruñean Bigarren Errepublika aldarrikatu zuen Serafín Huderri bidalitako gutun historikoa ere jaso du liburuan, beste dokumentu interesgarri eta argigarri batzuekin.

"Liburu hau irakurtzea ez da atsegina, baina betebeharrak etiko bat da gure oroimen indibidual eta kolektiboarekiko", dio Paquita Sauquillok liburuaren hitzaurrean. ■



**Liburu hau
irakurtzea ez
da atsegina,
baina
betebeharrak
etiko bat da
gure oroimen
indibidual eta
kolektiboarekiko**

Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiausti Kortabarria
Irakaslea

Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57

20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com

www.4sgoiena.com

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SIKAI DE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKIN ENPATATUTIRIKO ALTZARIAK

Pertsona Nagusien Eguna ospatuko da urriaren 1ean, herriko jaien baitan

» Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaia eta Pentsionistek antolatu dute. » Festa eta aldarrikapena uztartuko dituzte.

Urriaren 1ean Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna ospatzen da mundu mailan, eta egun horrekin bat etorritz, aurten, lehen aldiz, herriko jai egitarauaren baitan ere **Pertsona Nagusien Eguna** ospatuko da, Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaia eta Pentsiodunen elkarteak antolatuta. Ondoko egitarauan ikus daitekeen moduan, festa giroa eta aldarrikapena uztartuko dituen eguna izango da. Herriar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.

PERTSONA NAGUSIEN NAZIOARTEKO EGUNA

Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna urriaren 1ean ospatzen da 1991z geroztik. Nazio Batuen Batzar Nagusiak izendatu zuen egun hau, pertsona nagusiek gizarteari egiten dioten ekarpena aitortzeko, zahartze aktibo eta osasungarria sustatzeko, eta adinkeria-aurka borrokatzeko.

Nazio Batuen Erakundeak hainbat printzipio onartu zituen XXI. mendeko biztanleriaren zahartzearen aukerei eta erronkei erantzuteko eta adin guztietako pertsonentzako gizarte baten garapena sustatzeko.

OÑATIKO PERTSONA NAGUSIEN MAHAIA

Duela hiru urte eratu zen Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaia, udalak bultzatuta, helburu argi batekin: adineko herritarren foro bat sortzea, kolektibo horren begiradatik herria nola dagoen aztertze, dauden gabezia eta

beharrizanak identifikatzeko, eta, ahal den neurrian, konponbidea emateko. Ez da ahaztu behar, Oñatin 60 urtetik gorako 3.000tik gora pertsona bizi direla egun, eta kopuru horrek gora egiten jarraituko duela gizarte zahartuz doan neurrian, eta proportzio berean ugarituko direla gizarte sektore honen beharrizanak ere.

Pertsona Nagusien Mahaia hamabostean behin batzen da, astelehen goizetan, eta herritar guztiak daude gonbidatuta bertan parte hartzera. Ez da beharrezkoa ezertan aditua izatea.

OÑATIKO PENTSIODUNEN ELKARTEA

Oñatiko Pentsiodunen Elkarteak zortzi urte eta erdi daramatza astelehenero elkartzen pentsio duinak aldarrikatzeko, eta urriaren 1eko festa eguna ere baliatuko du bere erreibindikazioak plazaratzeko.

Urte hauetako mobilizazio eta presio sozialari esker hainbat lorpen erdietsi dituzte pentsio sistema publikoaren defentsan, hala nola, 2013ko erreformak ezarritako %0,25eko urteroko igoera minimoa bertan behera uztea, pentsioak urtero KPlaren arabera eguneratzea, 'Jasangarritasun Faktorea' bertan behera uztea, edota gutxieneko nahiz alargun-pentsioak indartzea. Baina oraindik zer hobetu asko dagoela uste dute, pentsio publiko duin eta bidezkoak bermatzeko. Ildo horretan, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen dute, eta pentsio baxuenak osatzea Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatu arte, besteak beste.

EGITARAUA

URRIAK 1, OSTEGUNA

11:00

BERTSO SAIOA ETA MONOLOGOA

Egunari hasiera emateko bertso saioa txosnagunean, herriko bertsolarien eskutik.

Jarraian,

'In Crescendo' helduentzako clwn ikuskizuna

Virginia Imazen eskutik, txosnagunean.



12:00

MANIFESTUA

pertsona nagusien eskubideen alde.

Jarraian,

Omenaldia hildako nagusiei.

Ondoren,

Kalejira eta bermuta.

17:30

DANTZALDIA

Jabi Sound DJaren eskutik Atzeko Kalen



JUANJE MARGOAK
627 818 247

 **ARKITEKTURA**

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkari erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna, Gaztelekua
Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik

Bittor Madina Alzola (1944-2026)

Jerardo Elortza

Oñatititik kanpora denpora askuan bizi izan arren, gure Bittorrek ez eukan saltzeko bere jaixoterrixa. Hemen 1970eko hamarkada zail eta gatazkatsuan herri-eskolako maixu izan ondoren, Tolosaldeko Berrobira alde egin oskun bertako eskolako irakasle izateko jubilau zan arte. Han familixia sortu eta makiñatxo bat lan egin eben, irakaskuntzan ezezik bere bigarren bizilekuaren alde be bai. Bestiak beste, luzaruan kaleratu zittuan herriko egutegixa eta **Berrobiberri** urtekarixa.

Baiña, nahiz eta urrintxo egon, betik eutsi otsan Oñati eta txantxikuarrekin eukan hartu-emunari. Hemengo gorabehera, albiste eta argitalpenen billa jarduten eben, batetik eta bestetik. Ez hori bakarrik; batez be, **Kontzejupetik** aldizkari honek aspalditxo bere ibilbidiari ekin otsanetik, Bittor izan zan zenbaki askotan partehartzaille zintzuenetakua, bere iritzi-artikulu interesgarrixekin. Horregatik eta beste arrazoi batzuengatik, bihotzez eskerrak emun biharrian gagoz fan barri xakun lankide eta adiskidiari.

> OHAR ETA DEIALDIAK <

EUSKARAREN EGUNA BESKOITZEN

2026ko urriaren 9tik 11ra Beskoitzeko (Lapurdi) ikastola eta Txantxiku ikastola, Beskoitze eta Oñatiren arteko harremanaren beste atal bat jorratuko dugu bertan ospatuko dugun EUSKARAREN EGUNAREKIN. 2019an Manex Pagolari egindako omenaldiarekin, eta 2022an BI IKASTOLA, ZUBI BAT proiektuarekin, besteak beste, bi ikastola eta bi herrien arteko harremana sendotuz joan da. Urriko ekitaldi honekin beste urrats bat eman nahi dugu bide horretan.

Asteburu horretarako bi aukera izango dira:

- Asteburua bertan igarotzea: Ahurtiko kanpinean ostatu hartzeko aukera izango da.
- Urriaren 10eko ekitaldietan parte hartzea. Egun horretarako hainbat ekintza antolatuko dituzte beskoiztarrek, zeinetan Oñatiko beste eragile batzuk parte hartuko duten:
 - > Herriko Etxean harrera ekitaldia.
 - > Ondoren, pintxopotea eta kantu jira.
 - > Bazkaria.
 - > Bazkalostean, dantzak eta pilota jolasak Oñatz dantza taldeko eta Aloña Mendi K.E.ko pilotarien parte hartzearekin
- Asteburua Beskoitzen igaroko dutenek, igandean bisita gidatua edota mendi irteera izango dute.



Larunbateko ekitaldietara joateko asmoa dutenentzat autobusa antolatuko da.

Ohar honen bidez herritarrek gonbidatu gura ditugu ekintza honetan parte hartzera, eta izena emateko aukera hauek izango dira:

- Telefonoz ikastolara hots eginda (943 78 12 04)
- Erantsitako QR honen bidez.
- Sare sozialen bidez.



IZENA EMATEKO EPEA:
IRAILAREN 25a

EUSKAL HERRIA IRABAZTERA, FAXISMOARI EZ!

IRAILAK 13, MOBILIZAZIO NAZIONALA DONOSTIAN

Ezegonkorak dira egun bizi ditugun garaiak. Askotarikoak dira mundu globalean dauden gerra, genozidio edota zapalkuntzak eta berau sistema kapitalistaren krisiaren ondorio zuzentzat ulertzen dugu. Beraz, krisiaren ondorio, baina aldi berean sistemaren mesedetan, munduko boteretsuenak edozer egiteko prest daudela agerian utzi dute azken urteotan, munduko ordena mantentzeko asmoz.

Bestelako mundu baten sinesten dugunongan oster, eragin berezia du honek guztiak, izan ere, haientzat oztopo garen horretan, beharrezkoak

dituzte diskurtso jakin batzuk sortzea egungo sistemaren biziraupenerako. Horretarako makinaria oso bat jartzen dute martxan, eta horrek, noski, jendearen zentzu komunak eskuinerantzko joera izan dezan sorrarazten du.

Horrek badu itzulpen argi bat Euskal Herrian. Gurea bada urte luzeetan borrokatu izan duen, eta borrokan jarraitzen duen herri bat, eta horrek bereziki jopuntuan jartzen gaituen diskurtsoen hedapena dakar, esaterako espainolismoaren goraipatze jarraituak, feminismoarekiko oldarraldia edota

arrazakeria nonahi egonik. Erreakzio honek, euskal panoramako sektore askorengan desatxikimendua sortu badu ere, arrazoi hori bera izan da potentzial eraldatzailea sustatu duena.

Eta horretan kokatzen gara gazteok, horretan kokatzen da Ernai. Badugu beraz eginkizun argi bat, hots, euskal gazteria artikulatzea euskal herria antifaxista baten aldeko borrokan.



Funtzio bikoitza egozten diogu beraz euskal gazteriari, alde batetik ideologia faxistari kabitadik ez uztea, eta bestetik duela urte ugari irudikatu genuen

ortzi-mugara bidetan aurrera pausoak emanez joatea, Euskal Herria aske, sozialista eta feminista lortu arte.

Beraz, Ernai izango da lekukotza hartu, inguruak astindu eta gazteen artikulaziorako espazio.

Eta horretarako hitzordu garrantzitsua dugu gazte independentistok Irailaren 13an, Donostian.

Batu borrokara!

Gora Euskal Herria askatuta!

Gora Ernai!

Kepa Txintxurreta eta Izar Salazar (Oñatiko Ernai)

> OHAR ETA DEIALDIAK <

Haurren danborradako entseguak

Irailaren 19ko Haurren Danborrada prestatzeko entseguak honako egunotan izango dira:

OHIKO ENTSEGUAK:

• **Irailak 3, 7 eta 10** (Eltzian, 18:30-19:30)

ENTSEGU OROKORRAK:

• **Irailak 14 eta 17** (Eltzia, 18:30-19:30)

Danborra jotzen duten haur guztiek bertaratu beharko dute eta LARRUZKO gerrikoa eraman.

Nagusien danborradako entseguak

Irailaren 28ko danborrada prestatzeko entseguak honako egunotan izango dira:

OHIKO ENTSEGUAK:

• **Irailak 14, 16 eta 21** (Eltziako areto nagusian, 19:45)

ENTSEGU OROKORRAK:

• **Irailak 23** (Larrañako futbol zelaian, 19:30 –euria egiten badu, Larrañako kantxan–)

Zaldunak: Zaldi gaineen joan nahi duten pertsonen ondoko QRaren bidez eman behar dute izena. Zozketa, irailaren 14an egingo da.

Dantzariak: Aurten 2009ko kinttoak aterako dira dantzan. Guztira, 128.



Atzeko Kaleko argazkiak

Irailaren 1etik 11ra kultur etxean egongo da ikusgai Atzeko Kaleko jaietako mendeurreneko argazki erakusketa

Igotz Ugarte Larreta
Mug.: 676257120 • 639658046
Email: igotzugarte92@gmail.com

IGOTZ

erbitzuak

Oliba olio birjina estra ekologikoa
Aceite oliva virgen extra ecológico

15 l.
96 €

Ikusi katalogoa eta prezioak webgune honetan:
www.igotz.eus

Nafarroako kontserbak
Conservas de Navarra

Kantabriako bizkotxoak
Sobaos de Cantabria

Eskaera egin eta etxera banatzen da

Talde-antolaketa horizontalerako gakoetan sakonduz

Gogoeta eta formakuntzarako tarte hartuz hasiko du Emakumion Etxiak ikasturtea.

2025ean talde antolaketa horizontalerako gakoetan inguruan eginiko formazioari jarraipena emanez, eta azken urtean ikasitakoetatik abiatuta, bi saio antolatu ditugu:

IRAILAREN 11N, ostirala, herriko eragile eta norbanakoei bideratutako formazio saio irekia izango dugu: **Entzutea erdigunean**. Zein eragin du entzuteak taldeetako parte-hartzean eta erabakiak hartzeko moduan?

17:30etatik 19:30etara bitartekoa izango da saioa, Emakumion Etxian bertan.

Entzuteak prozesu kolektiboetan eta erabakiak hartzean duen eragina aztertzea izango da lehenengo saio honen helburua. Zeharkako gaitasun hori gakoa izan daiteke bai modu asanblearioan funtzionatzen duten erakundeentzat, bai eta gehiengoz erabakiak hartzen dituztenentzat edo beste gobernantza-eredu batzuk aztertzen ari direnentzat.

IRAILAREN 12AN, berriz, Oñatiko Emakumion Etxeko lan-taldeetan parte hartzen ari diren emakumeen txanda izango da: **Horizontaltasunari eusten**. Zein tresna eta praktika eskaintzen ditu soziokraziak erantzukizunak partekatze eta proiektu kolektiboak sostengatzeko?

Tailer praktikoagoa izango da bigarren hau, etxeko antolaketaren funtzionamendua hobetzera bideratuta. 10:00etatik 14:00etara izango da, Oñatiko Emakumion Etxian.

Aise kooperatibako Ana Perez eta Garoa Gartzandia izango ditugu bidelagun bi egunetan. Aldibereko itzulpen zerbitzua eskainiko da, eta saioetan parte hartu ahal izateko ez da beharrezkoa izango aurrez izen ematea.

Zatoz!



» 2025ean TALDE ANTOLAKETA
HORIZONTALERAKO GAKOEN INGURUAN
EGINIKO FORMAZIOARI JARRAIPENA EMANEZ,
ETA AZKEN URTEAN IKASITAKOETATIK
ABIATUTA, BI SAIO ANTOLATU DITUGU

Ikasturte honetan, anima zaitez etxeko antolaketan parte hartzera:

- **Saltserak:** ekintzan aritzeko
- **Programatzaileak:** egitaraua osatzeko
- **Zubigileak:** komunikazioa lantzeko
- **Talariakideak:** ikuspegi zabalarekin lan egiteko
- **Jostunak:** etxeko harremanak zaintzeko

Lan-taldeetan parte-hartu nahi baduzu, zatoz Emakumion Etxera edo eman izena web gunearen bitartez.

Mendi eta basoak guztiontzat

Natur Eskolara, noizean behin, mugikortasun urriko pertsonak hurbiltzen zaizkigunez, mendi eta basoetan haien inklusioa bermatzeko erosi dugun erreminta aurkeztera gatoz oraingoan. Joëlette aulkia du izena, eta lurzoru irregularretan ibiltzeko balio du. Gorpildun aulki arruntetan ez bezala, eserita doan pertsonak ez du tresna horren kontrolrik, izan ere bi edo hiru pertsonak sostengatu eta bultzatuta funtzionatzen du.

Natur Eskolan erabiltzeaz aparte, Joëlette aulkia herritar ororentzat egongo da erabilgarri hemendik aurrera. Horretarako, gurekin harremanetan jarri besterik ez dago. Oñatin, herritarrentzako eskuragai dagoen bigarren Joëlette aulkia dugu hau, Trautik duenarekin batera.

Bide batez, duela urte batzuk Trautik egin bezala, Joëlette aulkia erabiltzen ikasteko eta inklusioaren begiradara gerturatzeko ikastaro teoriko-praktikoa antolatu dugu, interesa duen herritar ororentzat edo bere lanean edo militantzian erabilgarri izan dakiekeen pertsonentzat (irakasleak, hezitzaileak, elkarteak...) bideratua.



Joëlette aulkia erosi dute Oñatiko Natur Eskolan, bertaratzen diren mugikortasun urriko ikasleen inklusioa bermatzeko. Aulkia herritar ororentzat egongo da erabilgarri

Mendian inklusioa bultzatzeko tailer teoriko-praktikoa egingo da irailaren 12an, Natur Eskolan

MUGIKORTASUN ASTEA - Irailaren 12tik 20ra

► **TAILER TEORIKO-PRAKTIKOA / IRAILAK 12, larunbata (9:30-13:00) Natur Eskolan**
Montaña, Inclusión Radical. Cristian Rodríguez Morales, Ibilki mendi-talde inklusiboko elkartearen sortzailea. Mendian inklusioa bultzatzeko tailer teoriko-praktikoa.

► **KIROLDEGI AURREALDEA OINEZKOENTZAT / IRAILAK 16, asteazkena**
Kiroldegi aurrealdeko kalea (Bidebarrieta zatia), azoka ondoko biribilgunetik anbulatorioko biribilgunera, oinezkoentzako eremu bihurtuko da irailaren 16an. Horrekin, oinezkoentzako eremu seguruak zabaldu eta autoaren gehiegizko erabileraren inguruko kontzientzia piztu nahi da.

► **HERRIBUSA DOAN (ASTE OSOAN ZEHAZ)**

Garraio publikoaren erabilera sustatzeko asmoz, Herribus zerbitzua doan izango da aste guztian zehar.





HAUR ETA GAZTERIAKO UDAL ZERBITZUEN UDA!

Aurtengo udan ere, eguraldia lagun, **Udaleku irekiak** eta **Arte Udalekuak** dastatzeko aukera izan dugu.

Horretaz gain **Ludoteka** eta **Gaztelekuko** zerbitzuetan hainbat irteera ere gauzatu ditugu, eta guztiok –haur zein hezitzaileok– topera disfrutatzeko aukera izan dugu! Horren erakusle dira ondorengo argazkiak.

Beraz, mila esker urtero gure departamendutik eskainitako zerbitzuetan konfiatzen duzuen guztioi! Baita era batera edo bestera parte hartu eta lagundu diguzuenoi ere!

Elkarrekin primeran pasatu dugu eta!

Oñatiko Haur eta Gazteria saila.



“ZEREN ZAIN ZAUDE AURREZTEN HASTEKO?”

500 Mb-eko ZUNTZA

+ 2 MUGIKOR-LINEA

34,90€ /HIL
BEZa barne

Zatoz LIZKER INFORMATIKA
dendara, kontrata ezazu
zuntza + mugikor linea bat eta
aukeratu zuretzat opari hau



LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



(BEZa barne). Eta aukeratu aire bidezko frijigailua. Irailaren 1etik irailaren 30era, eskaintzan kontratua baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, dei mugagabeekin eta partekatuzeko 50 GB-rekin, hilean 34,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existentziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO



Aloña Mendi, Emakunde, Eskubaloia eta Futbol federazioak, Foru Aldundia eta Oñatiko udaleko ordezkariak protokoloen aurkezpen ekitaldian

Jokatu, entrenatu eta animatu beti errespetuz eta berdintasunean

Aloña Mendiko Eskubaloia eta Futbol sailek indarkeria prebenitzeko jokabide-kodeak eta protokoloa landu dituzte

Kirol espazioak ingurune seguru, inklusibo eta biolentziarik gabeak izatea nahi du Aloña Mendi kirol elkarteak, eta helburu horrekin jokalaria, teknikaria, familiak eta zaleak barne hartzen dituen bide-orri bat prestatu du, 2026/27 denboraldiarekin batera martxan jarriko dena. Plan integral bat da, prebentzio eta jardueren protokoloak ez ezik, jokabide edo portaera kodeak barnebiltzen dituena. Helburua argi dago: pertsonen ongizatea kirol emaitzen gainetik jartzea, errespetuaren eta berdintasuna-

ren balioak komunitate osora zabalduz. "Konpromiso aktiboa eta kolektiboa da bizikidetzaren eta tratu onaren alde", adierazi dute klubeko ordezkariak.

BI URTEKO LANA

Eskubaloia saileko zuzendaritza taldea berritzearekin batera, 23/24 denboraldian ekin zioten indarkeriaren kontrako plana lantzeari, eta ondoren futbol saila ere batu zen egitasmoa. Bidean, Emakunderen 'Gizonduz' eta Real Sociedad fundazioaren 'Joko OK' programaren aholku-

laritza jaso dute, eta Oñatiko udaleko kirol nahiz berdintasun teknikariekin ere elkarlanean jardun dute. "Prozesu oso aberasgarria izan da eta asko ikasi dugu", adierazi dute kirol elkartetik. "Arazoari ikuspegi ezberdinetatik heltzea da asmoa, kirolariak, talde teknikoak, familiak eta zaleak ere tartean sartuz. Denboraldi berriarekin batera egitasmo hau gizarteratzeko erronkari helduko diogu. Talde ezberdinetako jokalaria, entrenatzaile eta familiekin egingo dugu lanketa, eta zaleengana iristeko

» Indarkeria prebenitzeko neurriak irailean aplikatzen hasiko dira eskubaloia eta futbol sailetan. Poliki poliki, gainerako sailetara zabaltzea da asmoa.

● OÑABIKE
est. 95

bideak aztertzen eta lantzen ere hasita gaude, kirolean elkarbizitza eta tratua onartzeko helburuarekin". Aloña Mendin oso argi daukate: kirola ez da lehiatzeko gune bat soilik, funtsezko balioak transmititzeko gai den tresna hezitzaile, sozial eta komunitarioa ere bada.

PROTOKOLOAK ETA JOKABIDE-KODEAK

Aloña Mendik landu duen planak indarkeria egoeren aurrean nola jokatu behar den zehazten duen protokoloa jasotzen du, mota guztietako indarkeriak —fisikoa, psikologikoa, sexuala, matxista, diskriminatzailea edo digitala— prebenitzeko, detektatzeko eta haren aurrean jarduteko neurriak ezartzen dituen.

Indarkeria prebenitzeko, baina, ez dira aski protokoloak, eta, horregatik, jokalarik, teknikarik, familiak eta zaleek zuzenduriko portaera edo jokabide-kodeak ere landu ditu Aloña Mendik. Horietan jasotzen dira bakoitzaren eskubideak zein diren, baina baita betebeharrak ere.

Indarkeria prebenitzeko neurri sorta hau poliki-poliki elkarteko gainerako sailak ere zabaltzea da asmoa.

HASIERA BESTERIK EZ

Uztailaren 2an egin zuten indarkeria prebenitzeko egitasmoaren aurkezpen ekitaldia, eta bertan izan ziren, besteak beste, Emakundeko zuzendari Miren Elgarresta, Foru Aldundiko kirol zuzendari Roberto Ramajo, Gipuzkoako Futbol federazioko presidente Manu Diaz, eta Izaro Elorza alkatea. Oñatiko alkateak eta Emakundeko zuzendariak goraipatu egin zuten Aloña Mendik erakutsitako konpromisoa, eta balioan jarri zuten herrian hain errotuta dagoen klub batek komunitate parekideago bat erakitzeke duen garrantzia. Aloña Mendiko presidente Iñaki Mendarozketak esan zuen bidearen hasieran gaudela, eta benetako erronka izango dela printzipio horiek Aloña Mendiren egunerakoan txertatzea. ■

Aimar Urzelai bikain Espainiako txapelketetan



Aimar Urzelai gaztea izan da Oñatiko ordezkari bakarra aire libreko Espainiako txapelketetan. Aloña Mendiko igerilariak lan bikaina egin zuen uztailaren 16tik 19ra Kanaria Handian jokatu ziren Infantil mailako txapelketetan. Hala, Bizkar erako 50 metrokoan 12. sailkatu zen Urzelai 29.15-eko denborarekin; estilo bereko 100 metrokoan 15.a izan zen (1.03.18), eta 200ekoan 17. postuan amaitu zuen (2.19.79). Bere taldekide Unai Pedregal ere sailkatuta zegoen Espainiakoan parte hartzeko, baina etxean geratu behar izan zuen belarriko infekzio baten ondorioz.



Denboraldiko bigarren garaipena Elizbururentzat

Denboraldi bikaina egiten ari da Enzo Elizburu, Aloña Mendi-Ulma taldeko kadete mailako txirrindularia. Abuztuaren 25ean denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen Lakuntzan. Uztaila-abuztuan jokatu diren beste karrera batzuetan ere emaitza oso onak lortu ditu: Tafallan 2. sailkatu zen, Mungian 3., Azpetian 5. eta Los Arcos-en nahiz Trapagan 10.



Garaipenaren borrokan egon nahi du Aimar Erostarbek 'Oñati' sarian

Ohi bezala, irailarekin batera San Migel eta Oñati sariak jokatu dira gurean; Jubenil mailakoa irailaren 5ean, eta Afizionatuena 12an. Bigarren honetan, Smartolgo Nest taldean ari den Aimar Erostarbe izango da gure ordezkaria. Oñatiarra bosgarren denboraldia osatzen ari da Afizionatuetan eta oso maila onean ari da. "Bai, ekainean batez ere, emaitza onak lortu nituen —Mungian 2., Circuito Montañes-en 3., Tolosko Anza Memorialean 5.—, eta profesionalekin batera korritu nuen Espainiako txapelketan ere nahiko txukun ibili nintzen", adierazi digu. "Errendimendu aldetik denboraldi ona izaten ari da, baina emaitzaren bat falta izan zait, errematea jartzea". Oñatikoa denboraldiko azken aurreko karrera izango da eta garaipenaren lehian egon nahi du —jaz 5. sailkatu zen—. Oraindik ez omen du erabaki datorren urtean lehian jarraituko duen ala ez.

Pilota txapelketak irailan

Irailaren 19an Emakumeen Udako **Master Cup** txapelketako finalerdiak jokatu dira Zubikoan.

Bestalde, irailaren 8an hasita, **San Migel txapelketa** jokatu da Zubikoan, jubenil eta nagusien mailatan. Azken honetan Iñigo Erle oñatiarra ari da. Final laurdenetako kanporaketak irailaren 8-9 eta 15-19an jokatu dira, 19:00etan, finalerdiak irailaren 22-23an, eta finalak urriaren 4an, 17:00etan.

Bestetik, irailaren 26an, larunbata, **herriko pilota txapelketako** finalak jokatu dira plazako pilotalekuan (17:00).

Ate irekiak kiroldegian

Irailaren 7, 8 eta 9an ate irekien jardunak egingo dira kiroldegiko **fitness** jardueretan. Izena emateko azken egunak: irailak 6.

Musika Eskolak hiru ikastaro berri eskainiko ditu



► PANDEROA JO TALDEAN

» Panderoa deigarria iruditzen bazaizu, aukera paregabea izango duzu instrumentu hau ezagutu eta jotzen hasteko. Lehen egunetik pandero erritmoak ikasiz, musikaz gozatuz, jendea ezagutuz eta lagun talde bateko partaide izateko leku aproposa izango duzu. Saioak dinamikoak eta praktikoak izango dira. Taldea gutxienez 6 lagunez osatuta egongo da eta astean ordu beteko saioak izango dira. Adinez nagusia bazara, musika, lagunartea eta giro ona izango dituzu zain. Utzi albo batera lotsa eta beldurra, eta gauza berriak probatu.



► ABESTU TALDEAN

» Etxean edo lagun artean kantuan aritzen baldin bazara, talde hau zuretzat izan daiteke. Euskal eta inguruko erreperitorio tradizionala eta gaur egungoa landuko da hurbileko giro partehartzaile eta alaian. Herriko musika jardueretan parte hartzeko aukera izango duzu. Garrantzitsuena, kantatzeko gogoia eta musikaz gozatzeko nahia dira. Musikaren bidez lagunartea sortu eta esperientzia partekatua bizitzeko aukera izango duzu. Taldea gutxienez 6 lagunez osatuta egongo da eta astean ordu beteko saioak izango dira.



► PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALAK

» Urritik maiatzera plazako dantza tradizionalak ikasteko aukera izango duzu Patxi Montero irakaslearekin. Lotuan, soltean, jauziak, ingurutxoak, kontradantzak, joko-dantzak, plazako dantzak... Bi mailatan banatuta egongo dira taldeak: hastapena eta aurreratua. Dantzan egitea atsegin baduzu, oraintxe da zure aukera. Animatu!

INFORMAZIOA: Hiru ikastaro hauetakoren baten parte hartzeko interesa baldin baduzu, jarri harremanetan Musika Eskolarekin (idezkaritza@jazzpiazumusikaeskola.eus / 943 78 31 74, **irailaren 22a baino lehen**).

BARRENETIK SENTITU, BIZI, MUSIKA GOZATU!

MUSIKA ETA MUGIMENDUA: ATE IREKIAK



» 4, 5 eta 6 urteko ikasleentzat eta gurasoentzat ATE IREKIAK izango ditugu Santa Ana antzokian irailaren 14, 15 eta 16an (18:00-18:30).

Aforoa dela eta, saioak ikastetxeka antolatuko dira:

- **Irailak 14:** Txantxiku ikastola
- **Irailak 15:** Elkar Hezi ikastetxea
- **Irailak 16:** Urgain Herri Eskola

Gerturatu zaitezte Santa Ana antzokira eta zuen seme-alaben saioetan zer lantzen eta egiten den ikusi eta probatzeko aukera izango duzue.

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lentzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI

Liburutegiko irakurle taldeetan eta idazketa lantegian izena emateko epea zabalik dago jada

Helduen lau irakurle talde, haurren irakurketa kluba eta idazketa lantegia eskainiko ditu aurten ere liburutegiak

Udal liburutegian **irailaren 1etik 12ra** egongo da zabalik irakurketa taldeetan eta idazketa lantegian izena emateko epea. Interesa dutenek izena eman ahal izango dute liburutegian bertan edo *WhatsApp* bidez, 688 732 826 zenbakira mezu bat bidalita eta datu hauek emanda: Izen-abizenak, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa

Urtero bezala, aurten ere liburutegiak irakurzaletasuna sustatzeko hainbat irakurketa talde eskainiko ditu. Helduentzako **lau talde** izango dira: **bi literatura talde**, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, genero eta estilo askotako lanak irakurtzeko; eta **beste bi komiki talde**, euskaraz eta gaztelaniaz.



Itziar Ugarte
Tertulixan euskaraz



Mónica Leiva
Tertulixan gaztelerez



Kike Infame
Komikia gaztelerez



Itgor Leturia
Komikia euskaraz



Peru Magdalena
Irakurketa Kluba



Josemari Iturralde
Idazketa lantegia

IZEN-EMATEA

- **Epea:** IRAILAREN 1etik 12ra.
- **Non:** Liburutegian bertan edo *WhatsApp* bidez (688 732 826).
- **Eman beharreko datuak:** Izen-abizenak, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.

▼
Irakurketa nahiz idazketa taldeetako dinamizatzailerak izazko berberak izango dira

Eskaintza osatzeko, **Haurren Irakurketa Kluba** ere egongo da, gaztetxoenen artean irakurzaletasuna sustatzeko eta irakurketaren bidez esperientziak partekatze. Horrez gain, **Idazketa Lantegia** ere martxan izango da beste urte batez, idazteko zaletasuna duten edo sormen literarioa landu nahi duten herri-tarrei zuzenduta.

Aurreko ikasturtean bezala, talde guztiek **iazko dinamizatzailerak berberak** izango dituzte, parte-hartzaileei jarraipena eta lan-dinamika ezaguna eskainiz.

Irakurketa taldeen kasuan, ikasturtean landuko diren **irakurgaien zerrenda** izena emateko epea amaitu ondoren jakinaraziko zaie parte-hartzaileei, taldeak osatu eta behin betiko antolaketa egin ondoren.

Liburutegiak herritar guztiak gonbidatzen ditu ekimen hauetan parte hartzera. Irakurketa taldeek eta Idazketa Lantegiak irakurzaletasuna eta sormena sustatzeaz gain, esperientziak partekatze, literatura ezagutzeko eta kulturaren inguruan elkartzeko gune aberasgarriak eskaintzen dituzte.

Hots abesbatza bigarren Totanan



Hots abesbatzako kideak Totanako Habanera eta polifonia lehiaketan lortutako sariarekin.

Ganbara faktoriako Hots abesbatzak bigarren saria eskuratu zuen uztailaren 11n ospatu zen Totanako (Murtzia) Habanera eta Polifonia lehiaketan. Lehenengo saria *Coro de Cámara de la Universidad de las Américas Puebla* (Mexiko) taldearentzat izan zen, eta hirugarrena Torrejón de Ardozko (Madril) *Coral Polifónica Joven* abesbatzarentzat.

Hots abesbatzako kideak pozik eta harro itzuli ziren Totanatik, bizi izandako esperientziagatik eta emandako maila bikainagatik. "Esperientzia ederra bizi izan dugu, bai lehiaketaren mailagatik, bai elkarrekin igarotako egunengatik" adierazi zuen Aitor Biain-Bidarte zuzendariak. "Hotsek indar handiz, sentimenduz eta konpromisoz defendatu zuen bere programa, epaimahaiaren aitortza jasoz eta 2.000 euroko saria eskuratuz". Udazkenean beste lehiaketa batean –Torreviejako Nazioarteko Abesbatza Zikloan– parte hartuko du.

IBILALDI MITOLOGIKOA

Testua: Roberto Altuna / Ilustraziñua: Jabier Erostarbe



Euskal gizarteak milaka urtetan zehar garatu duen sinismen mundu oso bat sar dezakegu "MITOLOGIA" hitzaren barruan, berau naturan jaiotzen da eta bertako elementu guztiekin harreman zuzen eta sendoa gordetzen du. Gure herriak belaunaldiz belaunaldi gorde duen sinismen eta kontakizun hauek euskal gizakiak izan zuen pentsamoldea erakusten digute, naturaren fenomeno esplika ezinezkoen bizidunen kalitatea emanez (ilargia, izarlokak, ekaitza...), edo animalia eta gauza konkretu batzuei izaera sakratua erantsiz (erlea, astoa, txakurraren mihia, karda-lorea, erruda ta apioa [errudia ta aafixua]...).

Baserri giroko gizarte batetik hiriko gizarte berri baterako aldaketak luzaroan ahoz aho mantendu eta hedatu den kultura aberats baten galtzea ekarri du berarekin.

Etxeko suaren inguruan belaunaldiz belaunaldi igarotzen ziren kontakizunak ia galtzearekin badaude ere, oraindik suma ditzakegu lurpeko eta aireko jeinuen aztarna zaharrak Oñatiko mendi, erreka, baso eta lekuri baztertuenetako toponimia begiratu eta jarraitzen badugu.

Oñatiko toponimian garbi azaltzen den bezala, bertako biztanleen ustez izaki mitologikoak edonon zeuden, erreka zuloetan, baso izkutuenetan, leize zein koba sakon eta ilunetan. Ibilaldi mitologiko honen bitartez antzinako sinismen hauen munduan murgildu eta leku gorde hauen bila joatera gonbidatzen zaituztegu, imaginazioa askatuz besterik ez bada ere.

"Goizian hasiko dogu ibilaldixa, eguzkixaren lehenengo erraiñuakin batera... Lamiategin".

Artia errekan eta Garagaltza auzoan kokaturiko errotak eta ur gardeneko osin zabalak jasotzen dute izen hau. Izenak dioen bezala, lamiak omen daude bertan, emakume gorputz eta abere desberdinen hankak dituen pertsonaia mitologikoak. Beti uraren inguruan bizi dira, gizakiak agertzerakoan, ihesean, osin sakonetan murgiltzen dira. Gehienetan izaera oneko jeinuak dira lamiak.

"Ibillaldi malkartsua eta luze xamarra dogu hurrengo parajeraiño, baiña merezi dau nekiak... Gaiztozulo ikusteko".

Gaiztoaren zuloa dugu hurrengo geldiuena. Aloña-Aizkorri mendikatean, Buetraitz tontorreko iparraldeko amildegian dagoen kobazuloa deitzen da Gaiztozulo eta euskal mitologiako pertsonaia garrantzitsuenaren bizilekuetako bat dugu honako hau. Emakumea da, Jainkoa beste jeinu guztien gainera, eta izen desberdinak hartzen ditu herriaren arabera, Mari dugu berau, baina Oñatin 'Anbotoko señoia' edo 'Gaiztoa' bezala ezagutu izan dugu. Ugariak dira Gaiztoari buruzko kontakizunak, batez ere, Gorgomendiko magalean dauden auzoetan: Uribarri, Murgia eta Berezao, haren agerraldiak herri osoan ezagunak izan arren.

Itxura aldakorra dauka: zuhaitz tankera, suzko bola, zezen edo behi gorria, akerra, aharia, sugea, zaldia... Emakume ederra da, baina ahuntz hankak ditu eta oñatiarrek diotenez, Anboton egoten denean euria egiten du, baina Gaiztozulora etortzen denean, lehortea nagusitzen da.

Sinismen hauek oso erroturik zeuden adierazle ditugu Gaiztozulo barruan aurki daitezkeen burdinazko gurutzea eta arkaitzean margoturiko kustumia, garai batean Arantzazuko fraileak urtero joaten baitziren bertara Anbotoko Señoiaren kontrako konjurak egitera.

"Eguerdixa da eta Buetraitz mendixaren magalian gagoz, amildegixa igotia eziñezkua danez, sartalderuntz jarraituko dogu... Aitzezarteraiño".

Berezao eta Murgiako auzotarren ustez, 'Aitzezarteko Señoia' bizi da hemen, eta arkaitzetatik izugarritzko zaratak ateratzen direnean, bertan dagoen seinalea dugu. Orduan, Gaiztozulon egoten den 'Anbotoko Señoia' eta 'Aitzezartekoa' haserretu egiten direla diote bertakoek.

"Arratsaldia aurrera doa eta Aloña ziharreko hegoaldeko maldan behera etorriko gara Arantzazu errekek sortutako arruan dagoen Gesaltza eta Arrikruzeraño..."

Arantzazu eta Aldaola errekek sortutako lizunen edo kobazuloen sarrerak ikusiko ditugu, erraldoiak, zuhaitz eta zuhaizkez inguratuak, hezetasunaren erreinuak, lurpeko mundurako sarrera nagusiak eta jeinuen bizileku paregabeak. Errekek ur asko daramatenean izugarritzko zaratak ateratzen dira kobazuloetatik, orduan sorginak puxeta jotzen dabiltzala esango dute bertakoek (erropa garbitzen).

Sorginak izan direla toponimia aberatsak erakusten digu, **Sorgin-erreka, Sorginzulo, Sorgin-itturri, Sorginen puxeta-lekua...** eta zenbait izenek, **sorgin irak, sorgin itxuskixa, sorgin otia, sorgin haizia...**

Haizea atera du eta iluna dator, etxerantz joateko ordua heldu da eta nire bota zaharrek bide egokitik naramate. Izarloka batek zerua zeharkatu du, eta emakume zahar batek esandakoa datorkit burura: *"hori ezta izarloka, Gaiztua baiño, Anbotoruntz doiana Gaiztozulotik"*.

Oharra: Imanol Biainen eta Martin Jauregialtzoren *"Oñatiko mitologia"* lan argitaratu gabekotik hartua eta moldatua.

Hiztegia:

Sorgin irak: kirtenik bariko ida (Azpilleta). Sin. Sorgin-garo, sorgin-garua. iz. BOT. *Athyrium filix-femina*. Helecho hembra.

Sorgin-itxuskixa, el brusco (planta) Iz UrrAnz, ArOñ. "(Ruscus aculeatus), rusco. Bolatxo gorriak eta hosto txiki, gogor eta punta-zorrotzak dituen sastraka, gabon apaingarritzat erabiltzen dena" Elexp Berg. v. SORGIN-KILARRA.



AGENDA

ATZEKO KALEKO JAIXAK

IRAILAK 3

19:00 BEAU trikitxarangaren eskutik pintxopotea

IRAILAK 4

17:30 Jaiei hasiera emateko itxaflero jaurtiketa eta jarraian zinta lasterketa. Amaieran txokolatada Zubialde elkartearen eskutik Makalena parkean. **19:00** Hotz Oñatiren eskutik patata-tortila pintxoak eta bokatak salgai; **19:30** Txorimalo eta erraldioen kalejira. Ordu berean, 'Helmuga', presoaren aldeko elkarretaratzea; **19:45** Mojitoak, ACESMA elkartearen eskutik (amaitu arte); **22:00** Kontzertuak: *ZEATIKEZ*, *BSB*, *MALKO* eta *NAFARROA 1512*.

IRAILAK 5

12:00 Ipuin irakurketa, *Izar Mendiola* eta *Lukene Igartuaren* eskutik. **12:30** Auzokoen omenezko salda Makalena elkartearen eskutik. Ordu berean, bakarriketak: *Antton Telleria* eta *Asier K.* Ondoren, auzokoen argazkia Atzeko Kalen; **14:30** Auzo bazkaria; **18:30** Txorimalo eta erraldioen kalejira; **20:00** *Kitaldepare* txaranga Atzeko Kalen zehar. **20:00** Mojitoak ACESMAren eskutik (amaitu arte); **22:30** Kontzertuak: *MARUXAK* eta *MARTE LASARTE*. Bi kontzertuen artean piroteknia saioa eta suzko zezena. Kontzertuak amaitu ostean *DJ OSTADAR*.

IRAILAK 6

12:00 Musika bandaren kalejira eta, ondoren, kontzertua Iturritxoko plazaratxoan. **16:00** Mus txapelketa; **17:30** Txorimalo eta erraldoiak; **19:00** *GAUARGI* taldearen emanaldia. Tartean, boletoen zozketa. **21:00** Jaiei amaiera emateko itxaflero jaurtiketa.

ERAKUSKETA

IRAILAK 1-11: 'Atzeko Kaleko Jaixak 100 urte' argazki erakusketa kultur etxean.



DOKUMENTAL EMANALDIA / IRAILAK 7, KULTUR ETXEAN (19:00)

'Oteiza 14 apostolu'



Jorge Oteizaren ondare artistiko eta intelektuala zabaltzea helburu duen DANOK OTEIZA egitasmoaren baitan, Oskar Alegria zinemagile iruindarrak zuzendutako ikus-entzunezkoa. Artearen eta kulturaren arloko 14 pertsonak (Maialen Lujanbio, Bernardo Atxaga, Esther Ferrer...) hartuko dute hitza Oteizaren inguruko friso kolektibo bat osatuz. Oteizaren pentsamendua gaurkotasuneik irakurtzeko proposamen aberatsa eskaintzen du, ahots eta begirada anitzen bidez

ANTZERKIA / IRAILAK 16, EMAKUMION ETXIA (18:00)

'Bye bye gizontxo. Maskulinitateaz bi hitz'



Antzerkia eta jolasaren bidez, ikasitako maskulinitate patroiak identifikatzen lagundu eta norbere jarreraz hausnarketa egitera gonbidatuko zaituen saioa. Ez da ohiko bakarriketa bat. Elkarriketa bat da, zehatzago esanda. Identitate krisi bete-betearen dagoen pertsonaia taldearengana iristen da eta bere zalantzak plazaratzen ditu, eta laguntza eskatu. Hor taldeak lagundu beharko dio irtenbideak proposatu eta topatzen lagunduz.

DOKUMENTAL-HITZALDIA / IRAILAK 24, KULTUR ETXEAN (19:00)

'Los últimos pastores'



Samu Fuentes zinemagile asturiarraren lana. Hamahiru urte zituztenetik Europako mendietan artzain bizitza egin duten Fernando eta Manolo anaien bizipenak azaltzen ditu. Orain, 70 urte inguru dituztela, eta artaldeak saldu ondoren, oraindik ere artzainak ote diren hausnartzea dagokie. Ez dute besterik ezagutzen. Aldaketa garaia datoz, baina ez dirudi haien egunerokoan eragin handiegirik dutenik.

KONTZERTUA / IRAILAK 26, FORUEN PLAZAN, 23:00

LATZEN



Aurtengo jaien atariko hitzordu nagusietako bat izango da, zalantza barik, Latzen taldearen kontzertua. Hainbat urteko etenaren ostean, *Denboraren orbainak* disko berria plazaratu zuten iazko udazkenean, taldekide berri batekin –Yerko Ortizek bete du Iker Martinez de Zuazoren lekua– eta urte osoan zehar Euskal Herriko nahiz Espainiako hainbat areto bete ostean, herritarren aurrean dena ematera aterako dira irailaren 26an.

IRAILAK 11

18:59 Itxaflero jaurtiketa; **19:01** Martintxo txarrixaren subidoia; **19:04** Pintxopotia; **19:07** Txorimaluak, Jose de Azpiazu musika eskolakoek lagunduta; **22:03** Kontzertuak: *GIANTE*, *MUGAN* eta *ARAMU*. Ondoren, *ANDUTX*.

IRAILAK 12

11:00 Txikitrail (izen-emutia, 10:30); **11:45** Oñatz dantza taldeko haurren erakustaldia; **12:30** Auzoko haur jaixo barrixen argazkiza; **12:45** Gaztetxoendako 'encierrico'a; **13:00** Txakoli ferixia; **14:30** Auzo bazkaixa; **16:00** Mojito festa; **16:15** Petanka txapelketa; **16:15** DANEL magoa; **16:30** MUS txapelketa; **17:30** Gaztetxoendako 'encierrico'a; **18:00** Zerbeza ferixia; **18:00** *ROCKYOU* rock bertsioak; **18:30** Txorimaluak, Atxabaltako dultzaineruekin; **21:30** Martintxo txarrixaren bajonazua.

IKASTAROAK

YOGA HASTAPEN IKASTAROA

Oñatiko Yoga Eskolak antolatuta. Irailaren 15, 17, 22 eta 24an, goizez (9:30-11:00) edo arratsaldez (19:00-20:30). Izen-ematea eta informazioa: yogaonati@gmail.com / 610953794.

TXAPELKETAK

SAN MIGEL MUS TXAPELKETA

Irailaren 19an jokatu da Eltzian, 16:30 (izen-ematea, 15:45-16:15 / 30€ bikoteko). Sariak: 800€, 400€, 200€ eta 100€, gehi txapelak, garaikurrak eta opariak. Lehenengo oñatiarrentzat 200€.

JAIEN ATARIKOAK

- **BERTSO JAIALDIA**
Irailak 18 / Santa Ana aretoa, 19:00
- **ATSOLOKRA**
Irailak 19 / Udaletxea 11:00
- **ERRALDOIEN KONPARTSAK**
Irailak 19 / Herriko kaleetan 11:30
- **HAURREN DANBORRADA**
Irailak 19 / Bidaurretan hasita 18:00
- **HAUR DANTZARIEN EGUNA**
Irailak 20
- **MARGO LEHIAKETA**
Irailak 27 / Goizean zehar
- **ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA**
Irailak 27 / Santa Lutzian, 10:30
- **BOLAJOKO TXAPELKETA**
Irailak 27 / San Martinen, 15:30
- **ARKU-TIRO ERAKUSTALDIA**
Irailak 27 / San Martinen, 17:00

ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)
Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)
Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

IRAILAK 11 - 14



LA ODISEA

OSTIRALA, 11 (JBOA)
19:30
LARUNBATA, 12
19:30 / -
IGANDEA, 13
19:30
ASTELEHENA, 14
19:30 (ikuslearen eguna)

IRAILAK 18 - 21



EL SER QUERIDO

OSTIRALA, 18
22:00
LARUNBATA, 19
19:30 / 22:00
IGANDEA, 20
19:30
ASTELEHENA, 21
19:30 (ikuslearen eguna)

IRAILAK 25 - 28



LA BOLA NEGRA

(*) ESTREINALDIA.
Cannesen 'Zuzendaritza onena'
OSTIRALA, 25
19:30 / 22:00
LARUNBATA, 26
19:30 / 22:00
IGANDEA, 27
19:30 / 22:00

FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16
Irailak 17, 25, 26 eta 27. Urriak 3, 4 eta 5

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22
Irailak 2, 4, 5, 6, 8, 9, 10, 14, 16, 18, 19, 20 eta 28. Urriak 6.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58
Irailak 3, 7, 11, 12, 13, 15, 21 eta 22. Urriak 1, 7 eta 8.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28
Irailak 23, 24, 29 eta 30. Urriak 2, 9, 10, 11 eta 12.

ODOL ATERALDIA

IRAILAK 18 / 16:30-20:30
MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

FAMILIA etxebizitza bila Oñatin, alokatzeko. Deitu: 663 558 452.

EMAKUME arduratsua eta atsegina, hemengoa, haurrak zaintzeko edo adineko pertsonak paseatzera atera edo konpañia egiteko pret. Deitu: 695 738 795.

LANERAKO PREST Esperientzia-dun emakume arduratsua, adineko pertsonak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Deitu 602 013 318

BULEGOA ALOKATZEN DA Euskadi etorbidean, 18m². Deitu: 622 776 409

GARAJEA SALGAI Makalenian garajea salgai (18.000€). Deitu: 629 422 190

MERKATU TXIKIA
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

ZURE KOLTZOI EGOKIA AUKERATZEKO GIDA

NOLA EGITEN DUZU LO?

BAKARRIK

LAGUNDUTA

Zure bikotekidea asko mugitzen al da?

BAI

EZ

Zein da zure lo egiteko jarrera eta mugimendua?

A) ZURRUNBILO BAT
NAIZ
(Mila aldiz aldatzen dut
jarrera.)

AHOZ GORA EGITEN
DUT LOABAJO
(Edo gainazal sendoa
nahiago dut.)

C) ALBOZ EGITEN DUT
LO
(Behar adina bakarrik
mugitzen naiz.)

Bero handia pasatzen al duzu
lo egiten?


BAI 🤔

EZ 🙅

Material naturalak lehenesten
dituzu?

BAI 🌱

EZ 🚫



Poltsaratutako
malgukiak



Dentsitate handiko
HR apar teknikoa



%100 latex
naturala



Dentsitate handiko
biscoelastikoa,
memoriarekin.